

LANEAN, HERRITARREK ATSEDEN HARTU BITARTEAN

Herritar ugarik atsedenerako egunak izango dituzte Gabonetakoak, baina beste hainbatek lanpetuta emango dituzte egunok. Mikel Filgueira suhiltzaile abadiñarrak, adibidez, lanean hasiko du urte berria, gainerako herritarrek oporraldia patxadan gozatzen duten bitartean. / 2-3

Mikel Filgueira lurretako suhiltzaile-etxean.

Correos botako dute

Gaztetxea sortzeko ahaleginaren ondoren, udalak diru laguntza jaso du eraikina eraisteko / 4



Ibaizabal ikastolak
25. urteurreneko
ekitaldia egin du
Plateruenean / 5



 **HEGAN RENT**

Goitondo behekoa industrialdea, 1-1 partzela
48269 Mallabia (Bizkaia)
Tel.: 943 171 362

 administracion@alkideba.net · www.alkideba.net

Furgoneta alokairu
zerbitzu berria!



Lanean, gainerakoek jaiez gozatu dezaten

Herritar ugari atsedenerako egunak izango dituzte Gabonetakoak, baina beste hainbatek lanpetuta emango dituzte egunok, gainerakoek patxadan gozatu dezaten. Erreportaje honetan, neguko oporrak lanean geratu barik emango dituztenen testigantzak batu ditugu: gozogileena, suhiltzaileena, bitxigileena eta jostailu saltzaileena.



Axpeko plaza, Gabonetako apaingarriz jantzita.

"Orain 75 urteko filosofia berari eusten diogu"

GORKA, MIKEL ETA JON AYARZA AYARZA GOZOTEGIA

Zornotzako Ayarza gozotegiko kideak jo eta su dabilta lanean, eta datozen egunak ere geratu barik emango dituzte, Gabonei begira enkargu ugari hartzen dabilta eta

Ekaitz Herrera GOZOGILEAK

Ayarzatarren familia negozioak 75 urte egin ditu gozorik fineak eta landuenak eskaintzen. Gorka, Mikel eta Jon anaiek negozioko hirugarren belaunaldia osatzen dute. Gabon sasoi lanean emango dute, herritarren ospakizunetan gozorik falta ez dadin. Mikelek erantzun die ANBOTOren galderari.

Gabonen atarian, lana handitu zaizuela igarri duzue?

Urteko sasoi hau lan handikoa izaten da beti. Gabonak baino hilabete lehenago hasten gara prestaketekin; turroiekin, adibidez. Almendrak banaka-banaka zurrizten ditugu, eskuz; sikatu egiten ditugu gero. Artisautzako produktuek denbora eta mimoa eskatzen dute eta halantxik egiten dugu dena. Egunak luzeak izaten dira.

Zelako Gabonak izango dira?

Iruditzen zait onak izango direla. Lanean gabiltzala, telefonoa jo eta jo dabil. Jendeak etengabe deitzen du enkarguak egiteko. Bizi-bizi gabiltza.

Lan txandak handitu behar izan dituzue?

02:30 aldera hasten gara lanean, eta goiza eguneroko-eguneroko produktuak landuta hasten dugu. Behin horiek eginda,



Gorka, Mikel eta Jon Ayarza anaiek gozotegiak dituzte Zornotzan eta Durangon.

turroiekin eta Gabonetako produktuekin hasten gara.

Bezeroek zer produkturen bila jotzen dute zuenera?

Denerik dago. Pastak, bonboiak eta opilgintza, palmerak, gurinezko opilak eta halakoak asko saltzen dira. Gero, Gabonei dagokionez, izugarria da errege-opileroago eta gehiago eskatzen da. **Kontsumo ohiturarik igarri duzue bezeroengan?**

Gizartea etengabe dabil aldatzen, baina gure estiloa, gure filosofia, hasierako bera da. 75 urte egin

ditugu lanean eta gure aurrekoek egiten zuten era berean lan egiten dugu. Ez dugu hozkailurik edo halakorik erabiltzen. Egunerokoa saltzen dugu, kalitate handiko osagaiekin egindako produktua.

Gozogintzari dagokionez, zeintzuk dira zuen erreferenteak?

Gure aita. Aita gozogilea genuen eta hura izan da gure erreferentea. Osaba ere bai, baina aita etxe-etxekoa izan dugu, eta beti lanean ikusi dugunez, bera da erreferentea. Lana zen bere bizitza.



Mikel Filgueira, lurretako suhiltzaile-etxean.

"Lanean egonda, lankideekin ospatuko ditut Gabonak aurten"

MIKEL FILGUEIRA CAPELO SUHILTZAILEA

Urteberri egunean lanean egongo da, zer gerta ere

Ekaitz Herrera SUHILTZAILEAK

Mikel Filgueira suhiltzaile abadiñarrak lanean igaroko du Urteberri eguna, gainerako herritarren ospakizunetan murgilduta daudela. Ez da lehenengo aldia. Beste urteren batean ere egokitu zaio Gabonetako data seinalatueta lan egin beharra.

Askotan tokatu zaizu Gabonetako ospakizunetan lan egitea?

Sei bat urte daramatzat hemen. Inoiz tokatu zait, baina ez sarri. Egundak bereziak izaten dira, eta zure familiakoekin batu ezin izateak pena apur bat ematen du. Batzuek hemen egon behar izaten dute lanean, etxean senideren bat bakarrik dutela. Dena dela, lantaldean oso hartu-eman ona dugu; hau bigarren familia bat da zelanbait esateko. Esan daiteke, nahiz eta lanean egon, pozik ospatzen ditugula Gabonak bigarren familia horregaz.

Eta gertatu zaizu Gabonetako ospakizunetan larrialdiren batean esku hartu behar izatea?

Gogoan dut Errege egun batez Ermuko etxebizitza batean sua isiotu zela. Egongelara sartu ginenean, mahaiak ospakizunetarako prest zeudela ikusi genuen. Urdaiazpikoa eta halakoak zeuden mahai gainean. Bazkaria hastear zela piztu zen sua.

Hemen, lurretako basean, ospatzen dituzue Gabonak nahiz eta lanean egon?

Gabonetan zeozer berezia jatera ohituta gaude denok. Eta hemen, nahiz eta lanean egon, ohikoa ez den zeozer bazkaltzen edo

afaltzen ahalegintzen gara. Hemen barruan taldeka antolatzen ditugu kozinatze lanak. Lantaldeko kide batek beti izaten du sukaldean lan egiteko ardura. Egundak horietan denok laguntzen diogu elkarri. Dena dela, data seinalatuak izan arren, lanean gaude eta gure ordutegiak ditugu. Entrenamendu saioak ditugu, prestaketak eta halakoak.

Galdera kuriosoa: zer kozinatzen duzue lurretako suhiltzaileen parkeko kideek?

Presio handiagaz kozinatzen dugu! Izan ere, gure artean sukaldari bikainak daude, eta hor egoten dira batzuek, aldamenekoak zelan kozinatzen duen begira, zaintzen eta adarra jotzen! (barez) Azken finean, norberarentzat kozinatzen dugun arretera beragaz kozinatu gura izaten dugu inorentzat.

Olentzero eta Mari Domingi pasatzen dira hemendik?

Ez, oraingoz ez. Ea aurten etortzeko tartetxo bat hartzen duten! **Zer eskatzen diozu urte berriari?** Osasuna, hori barik ez dago ezer eta. Hemen lan eginda, istripuak ikusten dituzu. Edonoiz eta edonon edozer gertatu daitekeela ikusi dugu, eta horrek kontzientzia hartzen laguntzen dizu.

"KOZINATZERAKOAN PRESIO HANDIA DUGU, GURE ARTEAN SUKALDARI ONAK DAUDE ETA"

"Jendea opari bila dabil; zerbait erosi guran igartzen ditugu"

ENEKO UNZALU BITXIGILEA

Egunotan Bilboko GabonArt azokan dabil bitxiak saltzen

E.H. BITXIGINTZA

Unzalu Bilboko artisautza azokan egongo da lanean urtarrilaren 5era arte.

Gabon bueltako egunak opor egun dira askorentzat, baina artisauek lanean ibiliko zarete.

Bai. Nik neuk beharrean igaroko ditut Gabonak. Gabon eguna eta Urteberri eguna kenduta, hemen izango naiz, Bilboko Areatzan. Sasoi gogorra izaten da, dena eskuz egiten dugu eta. Gabonak urteko sasoirik garran-

tzitsuena izaten dira guretzat. Uda sasoiaren ere izaten dugu mugimendua, baina Gabonetan gehiago izaten dugula esango nuke. Jendea opari bila dabil, eta zerbait erosi guran igartzen ditugu.

Aurten zer sorkuntza eraman duzu Bilboko azokara?

Eraztunak, lepokoak, hainbat bitxi bilduma... Urtero gauza berriak ekartzen ahalegintzen naiz. Enkarguak ere hartzen ditut, nahiz eta Gabon sasoi honetan ezinezkoa zaidan ho-



Eneko Unzalu, Bilboko azokan.

riekin lan egitea. Opor ostean hasi beharko nintzateke horretan.

Zelan joan da orain arte Bilboko Gabonetako azokaren edizio hau?

Urtero etortzen naiz azoka honetara. Era honetako feria bakarrenetarikoa da, sektorean. Hemen eta Durangoko Euskal Dendan egoten naiz urtero. Horrez gainera, interesdunek Durangon daukadan tailerrean topatuko naute. Han daukat erakustokia, Ambrosio Meabe 6 helbidean.

"Helduak izan arren, haurtzaroko espiritua daramagu barruan"

ISABEL FERNANDEZ ALIAGA JOSTAILU SALTZAILEA

Fernandez Afede jostailu dendako arduraduna da

Ekaitz Herrera JOSTAILUAK

Isabel Fernandez donostiarrak urte asko daramatza Afede jostailu dendan lanean. Durangoko saltokian hartu du ANBOTO.

Egun gutxi geratzen dira Olentzero eta Mari Domingi etxeetara joateko. Jostailu dendetan estresa bizi duzue?

Urte osoan zehar lan egiten dugu Gabonei begira, sasoi hau izaten delako lan kargarik handienekoa. Egunak ziztuan joaten zaizkigu hemen, Gabonen zurrunbilan sartuta. Konturatzera, hara! Gabonak.

Gabonak, umeak eta jostailuak. Hara hor banaezinak diren hiru elementu.

Gurasoak oso exigenteak dira beren umeekiko, ondo begiratzen diete erosi beharrekoak. Batzuek umeek gura duten hori erosten dute, kito. Beste batzuek, aldiz, jostailu klasikoagoak oparitzeko hautua egiten dute. Zurezko jostailuak eta elektronikoak ez direnak, adibidez.

Aldatu egin dira joerak?

Joera aldaketak nabaritzen ditugu. Gaur egun jostailu sexista eta beliko gutxiago dago, eta erreferentzia kulturali eta *merchandising* delakoari loturiko gehiago. Superheroi jostailuak edo *Txakur Patruila* telesailari loturikoak, esaterako.

Aurtengo denboraldiari dagokionez, zein da jostailuen artean izarra?

Orain oso boladan daude pegatinak, boligrafoak eta errotuladoreak sortzeko jostailuak. Sormenarekin lotutako jostailuak ere boladan daude, margotzeari



Fernandez Durangoko Afede dendan.

eta marrazteari lotutakoak. Eta mahai-jolasei dagokienez ere, beste horrenbeste. Izurritik hona asko handitu da mahai-jolasak erosteko ohitura.

Internet bidezko salmentak, pake-teak, zelan bizi duzue aro hau?

Kritika bat egin nahiko nuke: jendeak gero eta ohitura handiagoa du Interneten erosteko. Horrek kaleak basamortu bihurtzea dakar, komertzio txikia hiltzen baitu apurka-apurka. Guk tratatu zuzena dugu bezeroarekin, aholkua eskaintzen diogu eta honako hau ere zero kilometro kontzeptua da.

Zelan igaroko dituzue Gabonak?

Gure barnean daramagun ume hori elikatzen. Izan ere, mundu honetan lan egitean umetasun hori kutsatzen zaizu. Haurtzaroko espiritua barruan daramagu denok, eta halako data berezietan kanpora irteten da.



Konfiantza hazi eta hezi. Nevers, familien ikastetxea

Gure ikastetxean hezkuntza pertsonalizatu eta hurbil baten aldeko apustua egiten dugu. Ikasketa prozesua familiarreko giro batean eskaintzen dugu eta ikasle bakoitzari trataera berezia ematen diogu. Honetan guztian irakasleek ikasleen garapen osoan laguntzen dute

Zergatik Neversen aldeko apustua?

- **Ikastetxe familiarra:** ikasleek, gurasoek eta irakasleek hezkuntza-komunitate sendo bat osatzen dugu eta bertan konfiantza, errespetua eta hurbiltasuna sustatzen ditugu. Haur eta gazte bakoitza gure familia handiaren parte da eta elkarrekin lan egiten dugu ikasleak aintzat hartuak izan daitezen.
- **Espazio berrituak:** Ikaskuntza bakoitzera egokitutako espazioak lortzeko asmoz, gure instalazioak berritu egin ditugu. Hauek espazio seguru eta gune estimulatzaile bihurtu ditugu. Gune bakoitzean sormena eta ongizatea bultzatzen dituzten atsedeen-guneak daude eta ikasleen garapena sustatzeko diseinatuak daude.
- **Irakasleen hurbiltasuna:** Ikasleen beharrak eta ahalmenak gertutik ezagutzen ditugun heinean, irakasleak ez dira soilik irakasle edo tutore, bidelagun baizik. Konfiantzaren pedagogian oinarritutako konpromisoa dugu eta errespetu eta empatian oinarrituta, ikasle bakoitza bere erritmoan hazten da irakaslearen laguntza etengabea duela jakinda.

Ikasleen garapen akademikoan indarrak jartzen ditugun arren, euren garapen pertsonala ere gure erdigunean dago. Hau lortzeko, komunikazio irekia erabiltzen dugu eta ikasle, guraso eta irakasleen arteko lankidetzaren indarrean sinesten dugu.

Etorri eta izan zaitezte gure gertuko hezkuntzaren parte! Elkarrekin, haur eta gazte bakoitzaren heziketa prozesuan lagunduko dugu, ingurune seguruan, konfiantza eta ikasle bakoitzaren onena ateratzen.

Zuen zain egongo gara Neversen familiarekin parte izan zaitezten!



Correosen eraikin zaharra eraitsiko dute Durangon

Abenduaren 6an Gaztetxetik Kalera dinamikako kideek eraikina okupatu zutenetik, udala eta gazteak aurrez aurre daude. Ertzaintzak gazteak eraikinetik irtenarazi zituen asteburuan, udalak eraikina "berehala husteko" kautelazko neurriak eskatu ondoren

J.D./A.B. DURANGO

Durangoko Udalak Correosen eraikin zaharra eraitsiko du 2025ean. Mireia Elkoroiribe alkateak eman du horren berri, udalak Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailetik lan horietarako 224.382 euroko diru laguntza jasoko duela jakin ondoren. Datorren urte hasieran, eraikina eraisteko eta plaza handitzeko proiektu lehiaketa kaleratuko du udalak, proiektua udarako idatzita egon dadin. Eraispin lanak 2026ko uda aurretik amaitzea aurreikusi du udalak, eta plaza handitzeko obra guztia urte horretako sanfaustoen aurretik amaitzea. "Udalerrriaren funtsezko eremu hori biziberritzeko jarduketa estrategikoa" dela nabarmendu dute udal arduradunek.

Aurrez aurre

Abenduaren 6an Gaztetxetik Kalera dinamikako kideek eraikina okupatu zutenetik, udala eta Gazte Asanblada aurrez aurre daude. Ertzaintzak gazteak irtenarazi zituen Gaztetxetik joan zen asteburuan, udalak eraikina "berehala husteko" kautelazko neurriak eskatu ondoren. Abenduaren 14an, tentsio momentuak sortu ziren. Ertzaintzaren auto bi eta istiluen kontrako hiru fur-



Gaztetxearen aldeko manifestazioak ehunka lagun batu zituen domekan.

goneta Gaztetxe aurrean jarri ziren. Ehun bat gaztek 'Gaztetxea defendatu' eta halako leloak oihukatu zituzten haien aurrean. Kaletik Gaztetxera dinamikako kideek Ertzaintzaren kargak salatu zituzten. Biharamunean eraikina hustu zuten. Domeka arratsaldean, ehunka lagunek manifestazioa egin zuten gertakari horiek eta "udalaren jarrera" salatzeke.

Udalak esan du eraikinean zeuden gazteek "bertatik alde egitea" erabaki zutela. Gaztetxeko kideek, ostera, errelato hori "faltsua" dela

diote, eta "modu ilegalean" kanporatu zituztela salatu dute.

"Gazteek bertaratzeko deialdi publikoa egin zuten eta guk, eraikinaren arrisku egoeragaitik, segurtasuna bermatzeko erantzukizuna dugu", adierazi zuen Durangoko alkateak. Era berean, auzokideei barkamena eskatu die "bizitako egoera desatseginagaitik". Gazteei elkarrizketara dei egin die. "Prest gaude euren jardunerako gune bat bilatzeko, espazio publiko baten erabilerak eskatzen dituen baldintzak beteta", argitu du.

2'6 milioi euro banatuko dituzte diru laguntzetan Durangon

Udalak 54 hitzarmenen, 24 diru laguntza deialdiren eta lau lehiaketaren bitartez banatuko ditu laguntzak

A.B. DURANGO

Durangoko Udalak datozen lau urteetarako diru laguntzen plan estrategikoa onartu du, eta horren barruan 2,6 milioi euro banatuko dituzte 2025ean. Sei helburu estrategikoren inguruan

egituratzen da diru laguntza plana, eta igoera "esanguratsuak" izan dira gizarte inklusioan, kultur arloan eta kiroltan. Laguntza ildo berriak txertatu direla gaineratu dute udal arduradunek. Udalak 54 elkartegaz dituen

hitzarmenen bitartez, 1.251.175 euro banatuko dituzte. Deialdietarako 1.338.707 euro lotu dituzte —berdintasuna bultzatzeko laguntza berriak barne— eta 10.900 euro lehiaketetarako —Julene Azepeitia eta Booktrailer lehiaketak edo sanfaustoetako kartel aukera—. Hauetxek dira sei helburu nagusiak: euskararen sustapena eta normalizazioa; gizarteratzea eta kolektibo kalteberak; kultura, aisia eta jai jarduerak; kirola; hezkuntza; eta ekonomia eta lan garapena.

Durangok 42,9 milioi euroko aurrekontua izango du 2025ean

EAJk eta PSE-EEk PPgaz akordioa eginda atera dute aurrera. EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak kontra egin dute

A.B. DURANGO

Aurreikusita zegoen legez, gobernu taldeak aurrera atera ditu 2025eko aurrekontuak Durangon. PPren abstentzioari eskerrak eta Mireia Elkoroiribe alkatearen kalitatezko botoa baliatu ondoren, 42,9 milioiko kontu "orekatua eta bideragarria" izango dute, EAJko Josune Escotaren berbetan. "Pertsonak erdigunean ipintzen dituen aurrekontu sozialak dira; zorrotzak, baina onuragarriak", esan du. Jessica Ruiz sozialistak bat egin du horregaz: "Arlo guztietan igo da aurrekontua, gastuen igoerak tarte gutxi utzi arren", zehaztu du. "Negoziatutako" kontuak izan direla gaineratu du.

Gobernu taldeak PPgaz egin du akordioa. Carlos Garcia zinegotziak azpimarratu du datozen urte bietan zerga eta tasak ez igotzeko konpromisoa adostu dutela, eta hainbat zuzenketa onartu dela.

Aurrekontuaren kontra

EH Bilduk esan duenez, gobernu taldeagaz "batera" bide bat egiteko asmoagaz bost zuzeketa aurkeztu zituen, etxebizitza, zaintza eta ingurumenagaz lo-

tuta. "Iazko blokeoa kentzeko prest egon gara, baina blokeo iraunkorra iraunaraztea erabaki dute, zinegotzi popularraren menpe", adierazi du EH Bilduko Iker Urkiza zinegotziak. Hainbat proiektu "geldituta" edo "egiteke" dagoela nabarmendu du. Herriaren Eskubideko Jorge Varelak dio "murrizketen" aurrekontuak direla: "Herriarrek 900.000 euro gehiago ordainduko dituzte zerga eta tasetan. Aurrekontu parte hartzaileetarako dirua 600.000 euro murriztu da eta Merkatu Plazarako aurretik zegoen proiektua baztertu dute".

Proiektu nagusiak

- Merkatu plaza birgaitzea (304.770 euro)
- Antso Estegiz kalea eraberritzeko 2. fasea (474.667 euro)
- Argiteria publikoa hobetzea (859.485 euro)
- Segurtasuna (3,95 milioi)
- Plateruena bultzatzeko (1,168 milioi)
- Trenbideko BEPB proiektua.

OHARRAK

Gabonetako Artisautza Azoka Durangon

Eixu artisau eta sortzaileen elkarteak antolatuta, abenduaren 22an eta 23an, 11:00etatik 21:00etara, Gabonetako Azoka egongo da Andra Mari elizpean. Olentzero eta Mari Domingirentzako gutunak jasoko dituzte han. ZUGAME kontu kontalariak ere egongo dira.

Hirigune historikoan zuntz optikoa sartuko dute

Lan hauekin, Durangoko Udalak ondare-balio bereziko eremu horretako etxeetan konektibitatea bermatu gura du. Udalak 48.264 euroko inbertsioa egingo du. Lanek hile bi iraungo dute.

Diru laguntzak enplegua sortzeko Durangon

Durangoko Udalak diru laguntza deialdi berria egin du langileen kontratazioa bultzatzeko, enplegua sortzeko eta tokiko enpresei laguntzeko. Lanbide finantzatu du deialdia, eta udalak 215.611 euro ipiniko ditu. Eskariak otsailaren 27ra arte egin daitezke.

Madalenako baselizako lanak aurrera doaz

Madalenako ermitaren kontserbazioa, segurtasuna eta funtzionalitatea bermatzeko, hainbat lan egingo dute bere fatxadetan, estalkian, sakristian eta arkupean, besteak beste. Udalak 48.000 euro erabiliko ditu.



Iratxe Bernedo eta Ana Vidal, Ibaizabal Ikastolan.

"Dena egiteko dagoenean sortzen den ilusio hori genuen"

Iratxe Bernedo Izagirre (Zornotza, 1983) eta Ana Vidal Gomez (Bergara, 1965) Ibaizabal ikastolako irakasleak dira. 25. urteurreneko ospakizunak antolatzen dabilta

JONE GUENETXEA DURANGO

Ibaizabal ikastolaren 25. urteurrenaren harira ekitaldi jendetsua egin zuten atzo Plateruenean. 35 ikaslegaz hasi zuten proiektua sendotu egin da mende laurden honetan. Gaur egun 350 ikasle batzen dituzte batxilergoan eta Lanbide Heziketan.

Zelan bizi izan zenuten sorrerako sasoiak?

Ana Vidal: Ez zen erraza izan, batez ere lehenengo urteetan. Oso proiektu potoloa izan zen. Hainbat ikastola inplikatu zen, baina egunerokotasunari aurre egin behar zitzaion. Batez ere, zailtasun ekonomikoak gogora-

tzen ditut. Baina azpimarratuko nuke oso lantalde gaztea zela eta denok sinesten genuela proiektuan.

Iratxe, lehenengo promozioiko ikasle lez, zein oroitzapen duzu?

I.B.: Oso proiektu ezezaguna zen. Hasi aurreko hileak ziurgabetasun handiagaz bizi izan genituen. Batez ere, ez genekien eraikina eginda egongo zen ala ez. Baina oso talde polita izan zen, oso berezia. Squas gela batean ematen genituen eskolak. Dena egiteko dagoenean sortzen den ilusio hori genuen.

25 urtean zein bilakaera igarri duzue?

I.B.: Jendarte eta ikasle profila aldatu egin da eta egoera horretara moldatu behar izan dugu. Hala ere, lehenengo eta oraingo filosofia berdina dela esango nuke, baina egiteko moduak aldatu direla. Ezin gara egon orain dela 25 urteko eran lan egiten. Izan ere, berrikuntza beti izan da Ibaizabalen ezaugarrietariko bat.

Orain, zeintzuk dira erronkak?

A.V.: Daukagunari eustea, gure ezaugarriak mantenduz: zentro anitza, euskaltzalea eta eragilea izatea. Bestalde, eraikin berria eraikitzen gabiltza eta datorren ikasturterako prest izatea espero dugu.

Dendak Bai elkarteak erosketak Durangon egitea sarituko du

Izotz pistarako sarrerak banatuko dituzte gaur. Gainera, abenduaren 23an eta 26an hainbat sari banatuko dituzte

A.B. DURANGO

Dendak Bai elkarteak Gabonetako kanpaina berria ipini du martxan erosketak Durangon egiten dituzten herritarrak saritzeko. Batetik, izotz pistarako sarrerak banatuko dituzte aben-

duaren 20an. Bestetik, Andra Marian sari-erruleta ipiniko dute abenduaren 23an eta 26an.

Kanpainara atxikitako establezimenduetako erosketak aurkeztuta lortu daitezke izotz pistarako sarrerak, gaur

(09:00etatik 15:00etara), Dendak Bairen bulegoan. Abenduaren 9tik 20ra arteko erosketak aurkeztuko dira: gehienez hiru sarrera lortu daitezke, 60 eurotik gorako tiketekin; 40tik 60 eurora arteko tiketekin bi lortu dira, eta 20 eurokoagaz bat.

Hilaren 23an eta 26an Andra Mariko elizpean ipiniko den sari-erruletan ere egongo da aukera izotz pistarako sarrera lortzeko. Zuzeneko hainbat sari irabazi daiteke, gutxienez 10 euroko tiketa aurkeztuta.

Tokiko komertzioa sustatzeko ekimena hasi dute Otxandion

'Poltsa bete Otxandion' ekimenaren eskutik, 10 euroko erosketa bonuak lortu daitezke herriko dendetan erosita

A.B. OTXANDIO

Udalak, herriko komertzioekin elkarlanean, *Poltsa bete Otxandion* ekimena hasi du, aurten hirugarrenez. Kanpainagaz bat egin duten herriko 10 establezimenduek 'Harraskatu eta irabazi!' txartelak banatuko dituzte euren bezeroen artean, 10 euroko erosketa bonuak irabazteko aukera emanez. Guztira, 10.000 euro banatuko dituzte bonutan, udal arduradunek azaldu duteenez. Eta urtarrilaren 5ean 1.000 euroko zozketan parte hartzeko aukera egongo da.

Abenduaren 9an hasi zen kanpaina eta urtarrilaren 5era arte iraungo du. Erosketa bonua lortzen dutenek hurrengo erosketa batean trukatu dezakete, saritutako txartelean adierazitako establezimenduan. Hilabeteke epea izango dute horretarako. Establezimendu hauek atxiki dira kanpainara: Inma eta Ebaki ile-apaindegiak, Gaztañeta harategia, Yago arraindegia, Coviran eta Korostondo supermerkatuak, Axpe estankoa, Goxoki denda, Urbietta farmazia eta Lavandula kosmetika.

**GABONETAN,
IURRETAN EROSI ETA
OPARIAK IRABAZI**

**ERRULETAN JOKATU,
OPARI ZUZENAK
IRABAZI ETA BI
PERTSONENTZAKO
AFARIEN ZOZKETAN
PARTE HARTU**



Informazio gehiago:
www.iurreta.eus
www.dendakbai.eus



Urgozo kiroldegiko lanak martxa onean

Kiroldegiaren hormigoizko egitura eraikita dago, eta baita sabaiko zurezko egitura ere; Zornotzako Udalarentzat proiektu hau "estrategikoa" da eta 6,5 milioi euro erabiliko ditu; Aginte Planean jasotako jarduketaren %63 martxan daudela azaldu dute

A. M. ZORNOTZA

Zornotzako Udalaren esanetan, Urgozo kiroldegiko lanak "nahiko arin" doaz. Kiroldegiaren eta alboko ikastetxearen artean muga egiten duen horma kenduta, asko erraztu dira lanak. Kiroldegiaren hormigoizko egitura eraikita dago jada, eta baita sabaiko zurezko egitura ere. Urgozo kiroldegi berria proiektu "estrategikoa" da udalarentzat, eta 6,5 milioi euro erabiliko ditu horretarako. "Erreferentziazkoa izango da, kirola, kultura eta aisia batuko dituen balio antzeko eremua. Azpiegitura moderno, jasangarri eta berritzaileak eskaintzearen aldeko konpromisoa islatzen du", azaldu du Ainhua Salterain alkateak. 2025ko lehenengo hiruhilekoan zehar eraikinaren kanpoko hormak eraikitzen hastea aurreikusten dute udaletik. Bien bitartean, eraikinaren estalkia ipintzeko lanekin jarraituko dute, isolamendu termikoa eta



Urgozo kiroldegiko lanak.

babes egokia ziurtatuko duten materialekin.

Bestalde, Ainhua Salterain alkateak eta Alicia Hernandez zinegotzi sozialistak Zornotzako Udalaren Aginte Plana aletu zuten joan zen astean prentsagaz egindako ekitaldian. Legegintzal-

dirako aurreikusten diren 74 proiektu edo egitasmoen %63 martxan daudela azaldu zuten, besteak beste. "Gure konpromisoa argia da: Zornotza irisgarriago, jasangarriago eta seguruago baten alde lan egiten jarraituko dugu", nabarmendu zuten.



Lehenengo edizioko argazkia.

Heriotzari buruzko jardunaldiak egin dituzte Berrizen

Hirugarren urtez, Gabon garaian dolua kudeatzeaz sakondu dute Berrizen antolaturiko zikloan

A. M. BERRIZ

Aitor Monjek eta Karmen Amezuak heriotzari buruzko jardunaldiak antolatu dituzte Berrizen, hirugarrenez. Hiru saiok osatu dute aurtengo zikloa eta azkena atzo egin zuten, Kultur Etxean. Gabon garaian dolua kudeatzeari buruzko solasaldia egin zuten. "Ekitaldi hau gure senideak modu kolektibo eta intimoan gogoratzeko egiten dugu; Gabonak data bereziak dira, eta ahalik eta modurik onenean igarotzeko lagungarriak izan daitezkeen iradokizunak egin dira solasaldian", azaldu dute antolatzaileek. Ho-

rrela, nobedade lez, Mikel Aranbururen eta Miren Barcenaren parte hartzea azpimarratu dute; euren testigantzak eskaini zituzten ekitaldian. "Aurreko urteekin alderatuta, aldaketa nagusia gazte biren testigantzak izan dira; batek aita galdu zuen, besteak neba, eta ez da ohikoa adin tarte horretako jendeak horrelako lekukotzak jendaurrean ematea", azaldu dute antolatzaileek. Orokorrean, pozik agertu dira zikloak izandako harreragaz. "Azaroaren 20an Death Cafe saioa egin genuen eta aretoa jendez bete zen", gaineratu dute.

Erabiltzaileak pozik Jabekuntza Eskolako ikastaroekin

Ia 100 lagunek parte hartu dute 2024ko Elorrioko Emakumeen Jabekuntza Eskolako ikastaroetan



Ikastaro bateko parte hartzaileak.

A. M. ELORRIO

Emakumeen jabekuntzarako aurtengo ikastaroak amaituta, partaideek egokitzen jo dute euren esperientzia. Elorrioko Udalaren esanetan, ia 100 lagunek parte hartu dute aurtengo ikastaroetan; bederatzi saio egin dituzte guztira, 15 irakaslek gidatuta. Hain zuzen ere, beste urte batzuetan baino ordu kopuru gehiago eskaini izana nabarmendu dute Berrizko Saitetik: "Ikastarorik arrakastatsuenak hilekoaren ikastaroa eta brikolajearena izan dira; askok eman zuten izena eta bina talde egin behar izan ditugu". Batez ere, 46tik 60 urtera bitarteko emakumeek parte hartu dute ikastaroetan, baina emakume gazteagoak eta nagusiagoak ere parte hartu dutela azpimarratu dute. Ikastaroek 6.350 euro inguruko kostua izan dute guztira.

Txintxirrik 40.000 euro jasoko ditu 'Teilatu bizia' proiekturako

Elorrioko Txintxirri Ikastolak 40.000 euro jasoko ditu Fagor Herrigintza lankidetzaren bitartez

A. M. ELORRIO

Fagor Herrigintza programaren bitartez, Elorrioko Txintxirri Ikastolak 40.000 euroko laguntza jasoko du *Teilatu bizia* proiektua garatzeko. Proiektu honek helburu bikoitza du; alde batetik, Elorrioko Argiñola Energia kooperatibaren laguntzagaz sorkuntza fotoboltaikorako azpiegitura garatzen lagunduko du. "Bioeraikina egin zenean, eguzki plaka termikoak ipini genituen, baina ezin izan genuen plaka fotoboltaikorik ipini; honek hori erraztuko du", esan dute. Beste-

tik, ortua berreskuratzea gura dute, Elorrioko nagusiekin batera kudeatuko dutena. "Oso interesgarria da zenbait belaunalditako elorriarrak ekimenetan batzea, eta horixe litzateke ortua berreskuratzearen helburua; Ikastolako umeen aitita-amamak, gurasoak eta bestelako senitatekoak batu daitezke ekimenetara", gaineratu dute. Fagor Herrigintza 2022an sorturiko lankidetzaren programa da, eta Euskal Herrian sorturiko ekimenetan laguntza du helburu; guztira, 38 proiektu aurkeztu dira aurtengo deialdian.



Aholkularitza
fiskala



Kontabilitate-
aholkularitza



Lan-
aholkularitza



Kontu-
auditoretza





Aholkularitza
juridikoa




Merkataritza
eta finantza

Zumalakarregi Kalea, 18, 1ºA - DURANGO

 688 831 836

 946 818 636

 clientes@gualbiasesores.com

2025ean frontoiko sarea aldatuko dute Izurtzan

Izurtzako Udalean 2025eko aurrekontuak onartu zituzten joan zen barikuko udalbatzarrean. Datorren urtera begirako inbertsioen artean pilotalekurako hobekuntzak daude: frontoiko sarea eta frontiseko toldoak berriztuko dituzte

Joseba Derteano IZURTZA

Izurtzak baditu aurrekontuak 2025era begira. Gobernu taldeak (EH Bildu) eta EAJk aho batez onartu zituzten joan zen asteko udalbatzarrean.

Datorren urtera begirako zenbateko osoa 644.070 eurokoa da, aurtengoa baino 25.000 euro gehiago. Besteak beste, Udalkutxatik aurten baino 15.000 euro gehiago jasoko dituzte; 356.000 euro, guztira.

"Aurrekontuak herritarrek eskatutakoaren arabera egiten ahalegindu gara, proiektu bereziagoak ahaztu barik", adierazi zuen Oihane Irastorza Izurtzako alkateak.



Frontoian hainbat hobekuntza egingo dute.

2025ari begirako inbertsio bat pilotalekua hobetzeko da. Esaterako, frontoiko sarea eta frontiseko toldoak —txapa azpikoa nahiz frontis gainekoa— aldatuko dituzte, zaharkituta geratu direlako. Proiektu honetarako, hasieran 17.000 euro ipini dituzte.

Beste inbertsio bat auzo-bideak konpontzea izango da. Zeregin honetarako, 20.000 euro gorde dituzte aurrekontuetan. Esaterako, Etxano auzorako bidea konponduko dute, eta baita Arbizolea industrialdearen inguruko bide bat ere.

Plazako proiektua

Legegintzaldi berrirako egitasmo garrantzitsu bat plaza eraberritzea da. Herri batzarretan jasoriko ekarpenekin dabilta proiektua egiten. Besteak beste, plazako eremu batean estalpe bat egiteko asmoa dute. Udal ordezkariak azaldu zuten proiektua "laster" egongo dela prest. Inbertsioari aurre egin ahal izateko, zenbait finantziario ildo (diru laguntzak...) aztertzen ere hasiko dira.

Gabonetako pintura tailerra umeentzat, Hontza Museoa

J.D. MAÑARIA

Mañariko Hontza Museoa Gabonetako Pintura Tailerra antolatu dute abenduaren 23rako eta 24rako. Bertan, euren irudimena askatu eta Hontza Museoko bildumako 2.000 piezetan inspiratutako lan ederrak sortu ahal izango dituzte. Tailerrak 10:00etatik 12:30era izango dira eta eguneko prezioa 10 euro da. 5etik 10 urtera arteko haurrentzat pentsatuta dago eta ez da beharrezkoa alde aurretik pinturan esperientziarik izatea, museoko kideek ohar batean azaldu dutenez. Tailerrak Laura Solagaistua gidatuko ditu. Parte hartzaile bakoitzak pintura teknika erraz eta dibertigarriak ikasiko ditu, artelanak egiteko tresnarik esan-guratsuen eskuak direla. Gainera, beharrezko material guztia emango dute.

Izen ematea modu bitara egin dateke: 946 216 555 telefonora deituta edo info@hontzamusoea.eus helbide elektronikora idatzita.

Neguko azoka eta askotariko ekimenak Gabon egunetan

J.D. ATXONDO

Datozen asteetan hainbat ekintza izango da Atxondon urtea merezitako moduan agurtzeko. Esaterako, gaur bertan —abendua 20—, 11:00etatik 12:15 ingurura, Neguko Azoka egingo dute Apatako plazan, Atxondoko eskolak antolatuta. Eurria bada, ekimena pilotalekura tokialdatuko dute. Erosketak egiteko, nork bere tuperrak eta ontziak eramatea gomendatu dute. Gaur arratsaldean ere badago zegas gozatu. 16:00etatik 18:30era haurren parkea egongo da, puzgarri, Ezyrollers zirkuitu eta jolasekin. 19:00etan dantzak izango dira, eta, ondoren, txokolatea.

Abenduaren 24an, kantuan irtengo dira. Axpeko plazan 09:00etan ipini dute hitzordua, eta Arrazolako plazan, 15:00etan. Azkenik, abenduaren 27an, Jokai egur jolasak egongo dira Apatako plazan, 11:00etatik 14:00etara. Hotz handia egiten badu, eskolan egingo da.

Atxondon pilotalekuko argiztapena berriztu dute

Frontoiko argiztapena aldatu eta hango ikuspena hobetu du Atxondoko Udalak. Auzo batzar batean mahaigaineraturiko eskaera bati erantzun gura izan diote horrela. Urtean zehar auzo bileretatik irtendako beste hainbat lan egin ditu udalak

J.D. ATXONDO

Atxondoko Udalak Apatako pilotalekuko argiztapen osoa berriztu du, auzo bilera batean mahaigaineraturiko eskaera bati erantzunez. Antzinako foku halogenoak eta erreta zeuden LED argiak argiztapen berriagaz ordezkatu dituzte, eta, ondorioz, ikuspena hobea da bertan, udalak ohar batean informatu duenez. Lan horietan, koadro elektrikoa aldagela zaharretik biltegi berrira eramateko aprobetxatu dute, biltegia leku egokiagoa delako mantentze-lanetarako eta segurtasunerako. Abenduan amaitu dituzte lan guztiak. Proiektu horren barruan, aldageletan



Abenduan amaitu dute Apatako pilotalekuko argiteria berritzen.

dagoen arazoari irtenbidea bilatzeko lanetan dabil udala.

Esku-hartze hori udalak bizi-lagunen beharrezanekin duen konpromisoaren parte da, eta pilotalekuaren energia kontsumoa optimizatzen du. "Kirol gune hori erabiltzen duten pertsona guztiei mesede egingo dien hobekuntza da", adierazi du Eneritz Agirre Atxondoko alkateak.

Auzo batzarrak, aintzat hartuta

Auzo batzarretatik irtendako proiektu gehiago ere gauzatu du aurten Atxondoko Udalak, "herritarrekin duen konpromisoa berretsiz". Ekainean, adibidez, komun publiko bat zabaldu zuen plazaren eta pilotalekuaren ondoan, biltegi lez erabiltzen den lokalaren zati bat egokituta. "Azpiegitura berriak oinarritzko zerbitzuak izateko beharri ere erantzuten dio", adierazi dute udal ordezkariak.

Bestalde, urrian, Axpe ondoko Olazabal auzoko bidea berriztu zuten. Eta inguruko ur-bideek konpondu zituzten. 28.120 euro inbertitu dituzte proiektu horretan.



Gaztekimen egitasmoako sarituak, babesleekin eta ordezkari politikoeekin.

Etorkizunerako oinarri eta ongarri

Durungaldeko Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasleek Gaztekimen sariak jaso dituzte, gizartea eraldatzea eta kohesio soziala lantzea helburu duten sariak. Egitasmoan eskualdeko hiru ikastetxetako 100 ikaslek baino gehiagok parte hartu dute

MANKOMUNITATEA DURANGALDEA
Etengabe aldatzen dabilen mundu honetan, gazteen parte hartze aktiboa funtsezkoa da gizartean eraldaketa positiboak bultzatzeko. Mankomunitateak, beste hainbat eragilez elkarlanean, helburu horri heldu dio *Gaztekimen* egitasmoagaz, hain zuzen ere: ikasturtean zehar Durungaldeko Oinarrizko Lanbide Heziketako ikastetxeetako ikasleen partaidetza sustatu du, prestaketa saioak eta ideia lehiaketak garatuta. Egitasmoaren aurtengo edizioa joan zen barikuan ailegatu zen amaierara. Durangoko San Agustín kultureguneak proiektuen lehiaketako sari banaketa hartu zuen, Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasleak eta Mankomunitateko eta gainerako erakunde publikoetako ordezkariak lagun. Egitas-

mora 16 proposamen aurkeztu ziren, eta zazpi igaro ziren azken fasera. Sari banaketan, lau proiektu izan ziren irabazle. Honako hauek: *Next Gen proiektua* (Ermua-Mallabiko Oinarrizko LH institutuko kideena), *Merkatu solidarioa* (Durangoko Oinarrizko LHko institutukoena), *Kirol-lehiaketa inklusibo buruzko proiektua* (Maristak ikastetxekeoena) eta *Denontzako gimnasioa proiektua* (Maristak ikastetxekeoena honako hau ere). Guztira, 100 ikasle baino gehiagorengana zabaldu da egitasmoa.

Sormena eta eragin soziala

Alabaina, errekonozimendu horretara heldu bitartean, ikasleek hainbat fase igaro dute. Lehenengoa ikasgeletako prestakuntzei loturikoa izan da. Ikasleek

parte hartze aktiborako oinarriko trebetasunak jaso dituzte horietan. Era berean, komunikazioari eta talde lanean lan egiteari buruzko trebetasunak jaso dituzte. Bigarren fasean, tokiko erronkei irtenbide zehatzak emateko ideiak garatu dituzte. Taldeka antolatuta, ikasleek ideien saioko proiekturik bideragarrienak aukeratu eta planifikatu dituzte, bakoitzaren inpaktu soziala, plangintza, zereginak eta epeak ezarrita. Azkenik, hirugarren fasea egin dute, proiektuen

**"GAZTEKIMEN
GAZTERIAREN
POTENZIALA
KATALIZATZEKO
ESPASIO BAT DA"**

aurkezpen publikoa Durangoko San Agustinen.

Gizarte kohesioa ardatz

Idoia Otaduy Mankomunitateko presidentea nabarmendu zuenez, "Gaztekimen ez da proiektu soil bat; gazteriaren potentziala katalizatzeko espazio bat", baino. "Ekimen honen helburu nagusia argia da: tokiko erronkei aurre egitea, gizarte-kohesioa sustatzea eta sormena, berrikuntza eta lankidetzaren bultzatzea", azaldu zuen joan zen barikuko aurkezpenean. Izan ere, egitasmoan parte hartu duten kideak Durungaldeko Oinarrizko Lanbide Heziketako hiru ikastetxetako gazteak izan dira. Hau da: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatua lortzeko prozesuan dauden 15etik 20 urtera bitarteko gazteak, prestakuntza teknikoa egiten dabilzanak. Normalean, hainbat arrazoire-

gaitik DBHko 3. maila gainditzea lortu ez duten gazteak izaten dira, edo Espainian ikasi ez duten etorkin adin txikikoak, kasu askotan Aldundiaren tutoretzapean daudenak, eta hizkuntza ez dakitela-ko ingurunera egokitzeko arazoak dituztenak.

Hori guztia dela eta, egitasmoaren bultzatzaileen iritziz, Gaztekimen lako ekintzek gazteak "gizartean errotzea eta haien inplikazioa sustatzea lagun dezakete, baita 15 ikasleko talde txikitik lan egiten duten ikasgeletan lankidetzaren handiagoko dinamika sustatzen ere". Mankomunitateko presidentea Idoia Otaduy gaineratu zuenez, "gazteriaren ahotsa entzutea eta indartzea funtsezkoa da" Durungaldearen garapenerako. "Jarraitu dezagun elkarregaz etorkizun hobe bat eraikitzen", amaitu zuen.



Idoia Otaduy presidentea.

anboto
kide



Anbotokideen
txokoa

ABENDUKO IRABAZLEAK



AMAIA AXPE MUGICA

Hotel Balneario Areatzan gau bat, logela bikoitza, gosaria eta zirkuitu termala bi lagunentzat.



EUKENE BARRENETXEA LARRAÑAGA

Basa Take Away jatetxean gastatzeko 25 euroko bonua.



ANDER GUTIERREZ JAYO eta HIART LEJARCEGUI MANDALUNIZ

Xiberu tabernan bi gosari bikoitz. Zornotza.

*Zozketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.

Urtarrilean bueltatuko gara zozketa gehiagorekin. Bien bitartean gozatu Gabonetan.

Okm:
batzen gaituen
distantzia

Egin zaitetz Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



24 bizikleta gordetzeko lekuagaz, Bizipark zabalik

Abadiñoko Udalak Bizkaiko Foru Aldundiarekin lankidetzan Bizipark zerbitzua jarri du martxan Traña-Matienan. Gune berri hau Traña-Matienako tren estazioaren ondoan dago eta 24 bizikletarentzako lekua du. 24 orduz egongo da irekita

M. Zuazubiskar ABADIÑO

Abadiñon martxan da Bizipark zerbitzua. Herritarrei bizikletentzako aparkaleku segurua eskaini eta udalerrian mugikortasun aktiboa eta jasangarria sustatzen jarraitzea da gune honen helburua. "Abadiñok mugikortasun jasangarriagaz eta bizikleta bidezko mugikortasunagaz duen konpromisoa berretsi gura dugu. Gaur Biziparka inauguratzen dugun arren, guk lanean jarraituko dugu Aldundiagaz eta beste erakunde batzuekin gure herrian zehar bidegorri sarea hedatu, inguruko herriekin konekzioak handitu eta bizikleta egunerokotasunean benetako garraio bilakatzeko", adierazi du Mikel Urrutia Abadiñoko alkateak. Sonia Perez Bizkaiko Foru Aldundiko Garraio eta Mugikortasun diputatuak eskerrak eman dizkio Abadiñoko Udalarari Biziparkaren alde apustu egitearren. "Guk proiektu hauek bultzatzen ditugu, bai



Sonia Perez, Angel Anero, Edurne Maguregi eta Mikel Urrutia.

na udalek honen aldeko apustua egingo ez balute, ezinezkoa izango litzateke", argitu du.

Gune berria Traña-Matienako tren estazioaren ondoan dago eta 24 bizikletarentzako lekua du. 24 orduz egongo da erabilga-

rri. Erabili gura duenak plaza eskatu beharko du aplikazio baten bitartez, eta tarifa bat ordaindu. Guztira, lau bonu daude: hilabetekoak 4 euro balio ditu, 3 hilabetekoak 10 euro, 6 hilabetekoak 20, eta urtekoak 40.

Aurrekontu parte hartzaileen prozesua, bozketa fasean

Hilaren 27ra bitartean bozkatu daiteke, internetez edo udalean, Traña-Matienako bulegoan, Errotan zein Mediatekan

M.Z. ABADIÑO

Abadiñoko aurrekontu parte hartzaileen prozesua bozketa fasean sartu da. Behin herritarrek euren proposamenak aurkeztuta eta bakoitzaren azterketa tekniko eginda, abadiñarrek 32 proiekturen artean hautatzeko aukera izango dute. Bakoitzak 6 proiektu aukeratu ahal izango ditu.

Aurtengo prozesuan, aurrekontuen araberrako banaketa egin du udalak. Alde batetik, 15.000 eurora arteko aurrekontuak dituzten proiektuen zerrenda dago, hamahiru proposamenez osatu-

ta; eta, bestetik, 100.000 eurora arteko aurrekontuak dituzten hemeretzi proiekturen beste zerrenda bat. Herritarrek zerrenda bakoitzeko hiru proiektu aukeratu ahal izango dituzte.

Herritarrek bozkatzeko dituzten proposamen guztien artean, udalak 30.000 euro erabiliko ditu 15.000 eurora arteko proiektuetarako, eta beste 100.000 beste zerrendako proposamenterarako. Udalaren berbetan, aurrekontu txikiagoa duten egitasmoei ere bide ematea da aldaketa honen helburua.

Dantza poteoa antolatu dute gaur iluntzerako Mallabian

M.Z. MALLABIA

Dagoeneko Gabon giroan murgilduta gaude eta eskualdean hainbat ekimen antolatu dute egun hauetarako. Horren adibide bat Mallabian gaurko, abenduak 20, antolatu duten dantza poteoa da. Zaparrada elkarteko kideek antolatu dute ekimena eta 19:30ean hasiko da, Herriko tabernatik abiatuta.

Iluntzeko dantza poteo honetan, herriko trikitilariak ipiniko dute musika eta alaituko dute kaleko giroa. Zaparrada elkarteko kideek herritar guztiak gonbidatu dituzte dantza poteoan parte hartzera.



Pasabide berria. GARAICO UDALA

Pasabide kanadar berritua Oizpean

E.H. GARAI

Garaiko Udalak eta Aldundiak Garaitik Oizerako bidean dagoen lehenengo pasabide kanadarra konpondu dute. Azpiegitura guztiz hondatuta egon da, baso ustiapenaren ondorioz makina astunak ibili izan dira eta eremuan. Herritarrek, bisitariek, abeltzainek eta txirringularrak istripuak izan zitzaizkete adierazi du udalak.

Zaldibarren, eskolako patioa handitzea helburu

Zaldibarko aurrekontuetan jasotako proiektuetariko batzuk parkeko hotela babestea, Solabarriako gimnasioan berrikuntzak egitea eta komun publiko bat ipintzea dira, besteak beste. Gobernu taldeak kontuak babestu ditu; oposizioak kontra egin du

Ekaitz Herrera ZALDIBAR

Zaldibarko Udalak prest du datorren urteko bide orria. 3.790.521 euro izango ditu 2025a kudeatzeko, aurtun baino %3,3 gehiago. Proiektuei dagokienez, honako hauek jaso dituzte, besteak beste: Plan Orokorra aldatzea eta horregaz parkeko hotela babestea zein osasun etxe berri batentzako kokaleku posiblea aztertzea, Solabarriako gimnasioan behea eta leihoak aldatzea, kalistenia parke bat ipintzea, komun publiko bat jartzea, gazteei arreta psikologikorako laguntzak ematea eta eskolako patioa handitzea. Eneritz Azpitarte alkateak eguazten iluntze-



Aurrekontuak eguazten iluntzean onartu zituzten, gobernu taldeko kideen botoekin.

ko plenoan azaldu zuenez, aurrekontuak "ongizatea hobetzeko tresna izango dira, eta baita herri biziago bat lortzeko tresna ere". Eskolako patioa handitzeari dagokionez, 2025ean zehar hasi gura dituzte lanak. Gainera, udalbatzak kreditu moldaketa bat egitea onartu du, obrei baliabide ekonomiko gehiago emateko.

Alde eta kontra

Kontuek EH Bilduren aldeko botoekin egin zuten aurrera. EAJk kontra bozkatu zuen, baita PSE-EEK ere. Jeltzaleek onartu zuten euren proposamenetariko batzuk aurrekontuetan jasota geratu direla, baina euren iritziz gobernu taldeak "ez du nahikoa indar egin" osasun etxe berriaren kokalekuari dagokionez. Gainera, autoen aparkaleku posible buri buruzko "aipamenen falta" igarri dute. PSE-EEK N-634 errepidean semaforo eta zebra bide bana ipintzea eskatu du, baina eskari horrek ez du argirik ikusi, "eskumen hori Aldundiarena" delako, alkatearen berbetan.



Aurkezpeneko irudia. IURRETAKO UDALA

Hasi dira Iurretako Bidebarrieta kalea berrurbanizatzen

Bederatzi hilabete iraungo duten lehen faseko obra hauetan udalak milioi bat euro inguru inbertiduko ditu

A.B. IURRETA

Hasi dira Iurretako Bidebarrieta kalea berrurbanizatzen. Udalak milioi bat euro inguru inbertiduko ditu eta 9 hilabete barru amaituko dituzte lanak. Bidebarrieta kaleatik kotxeak kenduta, leku gehiago sortuko da oinezkoentzat; hain zuzen ere, 1.000 metro koadroko eremu bat.

Proiektuaren lehenengo fasea da hasi dutena, gasolindegitik HAZeraino. Irisgarritasuna oztopatzen duten trabak kendu eta azpiegitura sareak konponduko dituzte; beharrezkoa bada, berriekin ordezkaturiko dituzte, udal arduradunek azaldu dutenez. Kalearen zati horretan, baimendutako kotxeak baino ezingo dira sartu, eta hori arautzeko, udalak ordenantza bat landuko du. Bigarren fasean, HAZetik Batzoki pareraino berrurbanizatuko dute kalea.



Bidebarrietako obrak martxan daude.

Lanak hasteko, bertan zeuden aparkalekuak kendu dituzte lehenago. Aurretik, baina, udalak errepide nagusiaren beste aldean aparkaleku berri bat egokitu zuen udan. Egoiliarrentzako 94 leku daude bertan, horietariko hiru egokituak.

Gabonetako erosketak Iurretan egitea sarituko dute

Udalak eta Dendak Baik kanpaina bat hasi dute Gabonetako erosketak herrian egitea saritzeko abenduaren 27an, 28an eta 30ean. Horrela, hilaren 12tik 30era arte herriko establezimenduetan egindako erosketak (gutxienez 10 euro) aurkeztuta, Bixente Kapanaga kalean ipiniko den erruletan zuzeneko oparia lortu ahal izango da. Bi laguntzeko hiru afari ere zozkatuko dituzte.

BERRIZKO KULTUR EKITALDIAK

Abendua

27 OSTRALA **FUTBOLISTOK**
ZUHAITZ GURRUTXAGA
21:00.

10 OSTRALA **MR. BO**
MARIE DE JONGH
17:00.

11 LARUNBATA **VIVORA + EJE**
KONTZERTUA 360°
19:00.

26 IRABIA **ARIZONA**
TXALO PRODUKZIOAK
19:00.

Taberna itxita, Isiotuk norabide berria emango dio proiektuari

Maialen Zuazubiskar ABADIÑO Isiotu Kultur Elkarteak 2022ko abenduaren 3an zabaldu zuen taberna, Abadiñon, Traña-Matienako auzoan bereziki euskararen, feminismoaren eta sexu askapenaren arnagune bat sortzeko. Ordutik honako 24 hileetan askotariko ekintzak egin dituzte: kontzertu akustikoak, antzerkiak eta DJ gauak,

besteak beste. Era berean, hausnarketarako hainbat gai korapilatsu landu dute berbal-dietan, hala nola minbizia, suizidioa eta lodifobia. Orain, elkarteko kideek tabernako ateak zarratzea erabaki dute proiektuari "norabide berri bat" emateko. "Hau ez da agur bat", argitu dute. "Kulturgunea da zarratuko duguna, baina

horrek ez du esan gura Isiotu amatatuko dugunik. Aurrerantzean, tabernara mugatu barik, gure udalerriko beste hainbat lekutara eraman gura ditugu ekintzak eta hausnarketak, Abadiño isiotzen jarraitzeko", adierazi dute. Alde horretatik, proiektuaren norabide berri bidelagun izatera deitu dituzte herritarrak. Bien bitartean, agur jaia izango dute. Ohikoa duten moduan, Gabonzahar gauean jaia egingo dute "auzolanen".



Isiotu Kultur Elkartearen kanpoaldea.

POLITIKAN
HERRIAREN
ESKUBIDEA -
INDEPENDIENTEAK

Merkatu Plazaren agonia

EAJren gobernuek bertan behera utzi dituzten urteek hiltzerioan utzi digute Merkatu Plaza. Ez da soilik eraikinek konponketak behar dituztela, plaza eredu ere eguneratu egin behar da.

Azken urteotan, Herriaren Eskubidea/Independienteak alderdiak parte-hartze prozesu bat egin du merkataria, erabiltzaile eta alderdi politiko guztiekin, plaza eredu hori gaur egun ondo funtzionatzen duten beste merkatu batzuetara hurbiltzeko. Lan horretatik, eraikinak berritzeko eta belaunaldien arteko aisialdi, ikastaro eta abarretarako gu-neak sortzeko izango zen proiektu bat eratu zen, energia berriztagarriaren sorkuntza ere barnean hartzen zuena.

EAJk eta PSOEek dagoeneko iragarri dute proiektu parte-hartzaile hori bertan behera utziko dutela, berrito ere merkatu plaza alde batera utzita eta gazteentzako, adinekoentzako, familientzako eta abarrentzako espazio estali handi bat sortzeko aukera galduta.

Herriaren Eskubidea/Independienteak alderdian lanean jarraituko dugu gure Merkatu Plazara inoiz galduta behar ez zuen lekua itzultzeko eta berriztapen proiektua lehenbailehen errealitate bihurtzeko.

DURANGALDEA ASTEON

Gabonetako artisau azoka, bihar, Traña-Matienan

ABADIÑO Zapatuan, abenduak 21, Gabonetako artisau azoka egingo dute Traña-Matienan. Azoka 11:00etatik 14:30era izango da eta askotariko produktuak erosteko aukera egongo da bertan. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, eguraldi ona eginez gero Traña plazan izango da; ostantzean, eskolako aterpean.



DURANGOKO UDALA

Kooperazioaren balioa, erakusketaren oinarri

DURANGO Durangoko Udalak, Medicus Mundi Bizkaiaiaz gailan, erakusketa inauguratu du. Nazioarteko kooperazioak elkartasun globaleko tresna lez duen garrantzia azpimarratu gura du erakusketagaz. Guatemalara bidaiatutako Durangoko lau gaztek sortu dute. Erakusketa urtarrilaren 12ra bitartean egongo da ikusgai, Landako Gunearen kanpoaldean eta Ibaizabal parkean.



PASABIDEKO ARGAZKIA

Pasabide eta aparkaleku berriak Zaldibarren

ZALDIBAR Euskal Trenbide Sareak oinezkoentzako pasabide berria eraiki du Zaldibar erdibitzen duen errepidearen gainaldean. Hainbat hilabeteko itxaronaldia amaituta, azpiegitura erabilgarri dago dagoeneko. Bestalde, Euskal Trenbide Sareak aparkaleku publiko berria egokitu du tren geltokiaren ondoan. Azpiegitura berriak 25 ibilgailuentzako lekua du.

GUTUNAK

Idatzi zure gutuna eta bidali!

Zure gutuna helarazteko helbidea: **Bixente Kapanaga 9 - Iurreta**
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO:

- Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

anboto

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazioa: Itziar Belar Zubizarreta eta Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Goretti Alonso Armendia.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



LAGUNTZAILEAK



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜISTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

OSTALARITZA GIDA




IURRETA

GAUARGI



Dantzari, 4 behea
Tel.: 944 356 674

Eramateko tortilla bereziak. Barikuetan mollete eta errazioak. Domeketan rabak eta askotariko errazioak.

 @gauargitaberna

ZORNOTZA

XIBERU



Zezenia Gallartzagoitia, 9
Tel.: 946 181 758

Gosari bereziak egunero, pintxopotea ostegunero eta afariak astebururo. Giro alai eta atsegina. Ongi etorri Xiberura.

 Xiberu Taberna
 @xiberutaberna

DURANGO

BASA Eroateko janaria



Untzilatx, 9
Tel.: 747 421 104

Gure sukaldean bertako produktuekin prestatutako plater gozo-gozoak, edonon jateko ontzi jasagarrietan zerbitzitzen ditugunak. Begiratu karta gure instagramean.

 @basa.durango





DURANGO

OLAJAUREGI



Kurutziaga, 52
Tel.: 946 200 864

Eguedian asteazkenetik igandera (13:00-15:30)
-Eguneko menua 19,90€
-Dastatzeko menua 45 €
-Karta
Gauean ostegunetik larunbatera (20:00-22:30)
-Mokadu karta
**TERRAZA ZABALIK: 12:00 - 00:00

 Hotel Olajauregi
 @hotel_olajauregi_jatetxea



GABONAK

2024

ABADIÑO

ABENDUAK 20

17:00 'Giro tropikala'. Potxin eta Patxin. Traña-Matienako frontoian.

17:00 Euskal mitologiari buruzko tailerrak. Traña-Matienako frontoian.

ABENDUAK 21

10:00 Open kickboxing. Probalekuan.

11:00-15:00 Neguko azoka. Traña plazan. Euria eginez gero, Eskolako aterpean (Traña-Matiena)

16:30-18:30 Ur puzgarriak. Udal igerilekuetan.

18:00 Erromeria: Aiko Taldea. Traña plazan.

ABENDUAK 22

10:00-13:30 Gabonetako xake txapelketa. Traña-Matienako frontoian.

11:30 Gabonetako lasterketa. Muntzaratzen.

ABENDUAK 24

9:00 Astxikira igoera. Txanporta plazan.

17:00 Olentzero eta Mari Domingiren kalejira. Traña-Matienan, Muntzaratzen eta Txanportan.

Muntzaratzera heltzean, txokolatada.

ABENDUAK 26

17:00 Pantxintxiketan: Urtaroen bidaia. Errota Kultur Etxean.

ABENDUAK 27,

11:30-13:30 / 16:00-20:00 Gabonetako Haur Parkea. 0-9 urte probalekuan. 10 urtetik aurrera, Traña-Matienako frontoian.

ABENDUAK 28-29

10:00-12:30 / 16:00-18:30 Abadiño Cup IX. Astola futbol zelaian.

ABENDUAK 27

19:30 Gabonetako kontzertua. Raúl del Toro (organoa) eta Javier Lecumberri (oboea). San Trokaz Elizan.

ABENDUAK 30

17:30 Txokolatada eta jolasak. Traña plazan.

URTARRILAK 3

18:00 CTM Traña-Matienako frontoian.

URTARRILAK 4

18:00 ONE musikala (ArteOn Laudio). Errota Kultur Etxean.

URTARRILAK 5

18:00 - 20:00 Erregeen kabalkada. Muntzaratzen, Zelaietan eta Traña-Matienan.

ATXONDO

ABENDUAK 20

16:00-18:30 Haur parkea: puzgarriak, Ezyrollers zirkuitua

eta jolasak.

19:00 Dantzak. Ondoren, txokolatada.

ABENDUAK 24

09:00 Olentzero kantari. Apeko plazan. Ostean, mokadutxo.

15:00 Arrazolako plazan.

ABENDUAK 27

11:00-14:00 Jokai egur jolasak. Apatako plazan (hotz handia badago eskolan).

BERRIZ

ABENDUAK 24

09:30 Olentzero eta Mari Domingi, Olakueta plazan auzoetara joateko.

17:30 Olentzero eta Mari Domingi, udaletxetik.

ABENDUAK 27

21:00 'Futbolistok' Zuhaitz Gurrutxagagaz, Berrizko Kultur Etxean.

ABENDUAK 28

12:15 'Pedro Alabazan' gabonetako abenturak, Berrizko Kultur Etxean.

19:00 Valentin Lasuenen omenezko kontzertua, San Juan Ebanjelariaren elizan.

ABENDUAK 30

10:00-12:00 Buruhandiak egiteko tailerra (10 urtetik aurrera), Olakueta plazan (euria eginez gero, probalekuan).

12:00-14:00 Buruhandiak egiteko tailerra (6-9 urtekoak),

Olakueta plazan.

URTARRILAK 2

11:00-13:00 3D puzzleak eta inpresioa, Olakueta plazan (euria eginez gero, probalekuan).

URTARRILAK 3

12:00-13:30 / 16:00-19:00 Gabonetako haur parkea, Olakueta frontoian.

URTARRILAK 5

17:30 Erregeen kabalkada, Komentutik Olakueta plazaraino.

DURANGO

ABENDUAK 20

Ihes-jokoa: Montevideo eta Durangoren arteko senidetza. Turismo Bulegoan, abenduaren 20an hasita.

21:00 Kontzertua: Hamaika ikusteko jaiok + Reder + Alerta. Plateruena kultur aterpean.

ABENDUAK 21

Izotz Pista. Landako Gunean. (abenduaren 21etik urtarrilaren 6ra bitartean).

12:30 Suk-Aldatu sukaldaritza tailerra. Gabonetako mokadu bereziak Saltsanen eskutik. Merkatu Plazan.

Gabon Jaia. Andra Mariko elizpean.

10:00-20:00 Azoka.

17:00-19:00 Haur tailerrak eta jolasak.

19:00 Ospakizuna Andra Mariko basilikan. (Ant.: *Inurri Skaut Taldea*).

12:00-14:00 Kalejira. Ibilbidea: Plateruen Plaza, Ezkurdi, Andra Mariko elizpea, Alde Zaharra. (Ant.: *Durangoko Orfeoia*).

19:00 Kontzertua. San Agustin kulturunean. (Ant.: *Tabira Musika Banda*).

Gabon jaia. Madalena auzoan. **17:00** Txokolatada.

17:15 Aurpegi margoketa eta DJ show

18:30 Kriskitin Dantza Eskola. Partaideak. Trikitixa.

19:30 Karaokea
20:00 Otzara baten zozketa
21:00 Gabon zaharretako kanpai hotsak.
21:15 DJa. (Ant.: *Auzo Alai elkarte*).

ABENDUAK 22

13:00 Gabonetako Txistu Kontzertua. Durangaldeko txistulariak, abeslariak, hari, metal, pianista eta trikitilaria. San Frantsisko Elizan. (Ant.: *Jaizale Durangaldeko txistulari elkarte*).

19:30 Kontzertua: Matías Sagreras (organoa) eta Juan Ignacio Emme (biolontxelo). San Frantsisko elizan. (Ant.: *Arandoño kultur elkarte*).

ABENDUAK 22

11:00-21:00 Artisautza Azoka. Andra Mariko elizpean. (Ant.: *Eixu artisautza elkarte*).

ABENDUAK 23

11:30-13:30 / 17:00-20:00 Bertako merkataritzaren sariak. Kale antzerki batek girotuta eta erruleta baten bidez, zuzeneko sariak irabazteko aukera herriko saltokietako erosketa tiketak aurkeztuta. Andra Mariko elizpean. (Ant.: *Dendak Bai merkataritza elkarte*).

ABENDUAK 24

18:30 Olentzero eta Mari Domingi kalejira: Kriskitin Dantza Taldea, Tronperri Dantza Taldea, Txoritxu Alai Dantza Taldea, Inurri Eskaut Taldea, Tabira Musika Banda, B. Ertzilla Musika Banda eta Txistulariak, Jaizale Txistu Taldea, Durangoko Orfeoia, Ekuadorreko Virgen del Cisne, Herria Auzo Elkarte eta Madalenako Auzo Alai. Ibilbidea: Institutua, F. J. Zumarraga Ermodo kalea Ezkurdiko kioskoa. (Eurria bada, Landako Gunean).

ABENDUAK 26

11:30 Jolas Eguna: Joko Erraldoiak. Tabira auzoan. (Laguntzailea: *Tabira auzo elkarte*).

16:00 / 19:00 'Ostirala iritsi da!' (Pirritx, Porrotx eta Marimotots) umeentzako ikuskizuna. Landako Gunean. Sarrerak 5 euroan salgai, abenduaren



17tik aurrera, Durangoko Arte eta Historia Museoa.

ABENDUAK 27

17:00 Jolas Eguna: Talo Tailerra. Muruetatorre auzoan. (Laguntzailea: Muruetatorre auzo elkarte).

ABENDUAK 28

12:30 Durango Kantari: Egundo i Taldea. Andra Mariko elizpean.

19:00 Dantzaro: Lorratz taldea. Andra Mariko elizpean.

ABENDUAK 28,

10:30-14:00 / 16:30-20:00 Gabonetako Haur Parkea. Landako Gunean (umeak doan, helduak euro 1).

ABENDUAK 31

12:00 Jolas Eguna: Kanpaikada txiki. San Fausto auzoan. (Laguntzailea: Centro Social San Fausto).

URTARRILAK 2, 3

10:30-14:00 / 16:30-20:00 Gabonetako Haur Parkea. Landako Gunean (umeak doan, helduek euro 1).

URTARRILAK 5

18:45 Errege Magoen kabalkada. Ibilbidea: Frai Juan Zumarraga
19:15 Ezkurdi
19:35 Udaletxe plaza (geraldia)
20:15 Andra Maria (Belen biziduna)
21:15 San Fausto. (Antolatzailea. Congregaciones Marianas).

URTARRILAK 6

13:00 JAEDen zozketa benefikoa. Andra Mariko elizpean. Saritutako zenbakiak Andra Marian eta www.jaed.es web-ean ikusgai.

ELORRIO

ABENDUAK 20

09:30 Herriko eskolako umeen Santamas azoka, plazan.

ABENDUAK 22

10:00 Bigarren eskuko azoka, Berrio-otxo kalean.

17:00 'La crisis de la imaginación' antzerki-dantza ikuskizun familiarra, Arriolan.

ABENDUAK 24

10:00-13:00 puzgarriak kiroldegiko igerilekuan.

10:30-15:00 VI. Gabonetako artisauek eta sortzaileen azoka plazan.

18:00 Olentzero eta Mari Domingi elizpean.

ABENDUAK 25

11:30 Meza Basilikako koruagaz Basilikan.

ABENDUAK 26,

11:30 / 16:30-19:30 haur parkea.

ABENDUAK 29

11:30 Umeen Santxibiri

12:30 Helduen Santxibiri

ABENDUAK 31

09:00 Erdellagaz mendira, Atxaurrutxagane eta Gongetara.

URTARRILAK 1

09:00 Erdellara irteera

URTARRILAK 2, 3

11:30-13:30 / 16:30-19:30 Haur parkea.

URTARRILAK 5

18:30 Errege Magoen etorrera elizpean.

GARAI

ABENDUAREN

Olentzerori eta Mari Domingi eskutitzak uzteko kaxa egongo da udaletxeko atarian.

ABENDUAK 20

19:00 Gabonetako kontzertua Elizabarrin

ABENDUAK 21

18:00 Kantu Lagun ekitaldia Gabon kantekin.

ABENDUAK 22



DURANGO Izotz pista
Durangoko izotz pistak abenduaren 21ean zabalduko ditu ateak eta urtarrilaren 6ra arte egongo da zabalik.

11:00 Gabonetako azoka

ABENDUAK 24

10:00 Olentzero eta Mari Domingi auzorik auzo.

17:00 Olentzero eta Mari Domingi plazan

ABENDUAK 21-29

Marraski lehiaketa. Udaletxeko atarian kaxa bat egongo da marraskiak bertan uzteko. Marraskien atzean egilearen gatxizena eta adina ipini behar dira. Horrez gainera, kartazal bat utzi beharko da kanpoan gatxizena idatzita, eta barruan izen-abizenak, adina eta telefono zenbakia ipinita.

ABENDUAK 29

17:00 Umeentzako filma eta merendola kultur etxean.

ABENDUAK 31

10:00 Arakaldora igoera plazatik hasita. Amaieran, kopaua.

IURRETA

ABENDUAK 13

Gabonetako tailerretan izena emateko azken eguna. Txiki Chef Gabonetako Errezeta Bereziak tailerrak urtarrilaren 2an eta 3an izango dira.

Gutun eta postalen lehiaketara lanak aurkezteko azken eguna.

09:00-12:30/16:30-19:30 Elkartasun Azoka.

ABENDUAK 17

20:00 Abenduko Koplen

entseguak.

ABENDUAK 20

'Olentzerori gutunak'. Eskolaumeek euren gutunak eramango dituzte Ibarretxe kultur etxera. Gainera, eskolekin hitzartuta, magia eta txotxongilo saioak antolatu dituzte:

10:15 'Erreka Mari' txotxongilo saioa Rosa Maria Martinezen eskutik (2-3 urte).

10:45 'Erreka Mari' txotxongilo saioa Rosa Maria Martinezen eskutik (4-5 urte).

11:00 'Zur eta Lur' magia ikuskizuna Imanol Ituiño magoaren eskutik (LHko 1. mailatik 4. mailara).

17:30 I. Gabonetako Olaburu Pilota Txapelketa. Kepa Arroitauregi frontoian.

19:00 'Piel de hombre' (Virginia Imaz) helduentzako ipuin kontaketa saioa. Ibarretxe kultur etxean. Sarrera gonbidapenagaz.

ABENDUAK 23

10:00 Abendu koplak. Aita San Migel plazatik irtenda.

ABENDUAK 24

12:00 Olentzerori eta Mari Domingiri harrera. Aita San Migel plazan. Ondoren, kalejira trikitilariak alaituta herrian zehar. Zatoz baserriar jantzita!

ABENDUAK 27

11:30 'Ipuin bat kantu bat' (Lur Korta) ipuin kontaketa (3-5 urte). Ibarretxe kultur etxean. Sarrera gonbidapenagaz.

12:00 'Ipuin bat kantu bat' (Lur Korta) ipuin kontaketa (6

urtetik gorakoak). Ibarretxe kultur etxean. Sarrera gonbidapenagaz.

ABENDUAK 26,

17:00-20:00 Gabonetako Haur Parkea: ludoteka, puzgarriak, jolasak eta tailerrak. Kepa Arroitauregi frontoian.

ABENDUAK 27,

11:30-13:30 / 17:00-20:00 'Gabonetan, erosi lurretan eta irabazi opariak'. Erruleta baten bidez, zuzeneko askotariko sariak herriko merkataritzan eta ostalaritzan abenduaren 12tik 20ra bitarteko erosketak (gutxienez 10 eurokoak izan behar dira) aurkeztzen dituzten herritarren artean. Gabonetako otzaren zozketan parte hartzeko aukera egongo da. Bixente Kapanagako biribilgunean.

URTARRILAK 1

09:30 Urte Barri Eguneko Igoera Gallandara. Taldean igotzeko, lurretako plazan.

11:00 Tontorrean ohiko argazkia. Salda eta 2025eko egutegiak banatuko dira.

URTARRILAK 2

Gabonetako tailerrak: Txiki Chef Gabonetako Errezeta Bereziak. Ibarretxe kultur etxean. Aurretiaz izena eman behar da. 09:30-11:00 LHko 1. mailatik 4. mailara. 11:30-13:30 LHko 5. mailatik DBHko 2. mailara.


URTARRILAK 5

17:30 Errege Magoen kabalkada. Askondon. Errege

GREMIOEN GIDA

Zurgintza	Zurgintza	Iturgintza	Iturgintza
<p>leike Eraberritzeak Interiorismoa Aroztegia</p> <p>NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK</p>  <p>www.leike.eus Antso Estegiz, 3 Durango Tlf: 94 681 72 29</p>	<p>ATERPE ARROTZALB</p> <p>EGUR ERAIKUNTZAK TEILATU ETA BARRUKO LANAK</p>  <p>Asler Abendibar 635 74 84 65 www.carpinteriaaterpe.com</p>	<p>Ubide iturgintza</p> <p>Iturgintza, gasa eta berokuntza</p> <p>946 030 506 / 625 702 208 ubide@euskalnet.net 48200 DURANGO 188 PK.</p>	<p>UNAI GARAY ITURGINTZA BEROGINTZA GASA</p> <p>INSTALATZAILE BAIMENDUA</p> <p>659 673 790 unaigaray@yahoo.es</p>

Elektrizitatea	Iturgintza	Dekorazioa
<p></p> <p>ELECTRICIDAD JON</p> <p>622 684 284 electricidadjon@outlook.es</p>	<p>Mallabiena</p> <p>M.Z.O. ITURGINTZA - GASA BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.</p> <p></p> <p>Mallabiena industrigunea, 6 48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862 mallabiena@mallabiena.com</p>	<p>JAIObarnizatuak</p> <p>Armairu eta era askotariko altzairuen lakadura eta guztietako zaharberritzeak egiten ditugu</p> <p>Eitua Industrialdea, 45 Garala A - BERRIZ Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421 info@jaiobarnizatuak.com www.jaiobarnizatuak.com</p>



Aritz Maldonado DURANGO

Durangon talde berri bat sortu da aurten, Reder hirukotea. Bingen Baños (gitarra) eta Xabier Erdoiza (bajoa) durangarrek ipini zuten martxan, eta gutxira batu zitzairen Unai Arregi elorriarra; lehendik ere Txabolakumeak, Zarraparra eta Kohatu taldeetan aritutakoak ziren, besteak beste; musika berria sortzeko gogoak batu ditu lagun zaharrak. Hirukotea gogotsu dago barikuko kontzerturako.

Zelan sortu zenuten taldea?

Xabier Erdoiza: Sorginolako bertsio gau batean elkarregaz jo genuen Bingenek eta biok; Kuraiaren bertsioak prestatu genituen gau horretarako, eta oso gustura geratu ginen. Horrez gainera, hirurok ia adinkideak gara eta nerabe ginenean talde banatan geunden. Gure taldeek elkarregaz jo zuten zenbait kontzertutan, eta elkar ezagutzen genuen. Garai horren ondoren, bakoitza bere aldetik ibili gara.

Bingen Baños: Bai, Sorginolako garai horretan hainbat talde sortu zen, eta hor hainbat ahalegin egin genuen batez eta besteaz. Arregik ere beste talde bat zuen, Txabolakumeak. Berririo jotzen ahalegin du ziren arren ez zuen funtzionatu, eta orain ez dabilta ezertan.

X. E.: Otsailean Bingeni deitu nion eta lau entsegu egin eta gero, egiten genbiltzanak itxura txukuna zuela ikusita, Arregiri idatzi nion. Sarri komentatzen zidan bera ere gogotsu zebilela taldea sortzeko.

B. B.: Egiten genuenak oinarri sendo bat zuen, itxura ona ere bai, eta, bateria faltan geundenez, Arregiri deitu genion. Hi-

"Gurea musika oldarkorra da"

MUSIKA Reder, Alerta eta 11 Ikusteko Jaiok talde durangarrek kontzertua emango dute barikuan Plateruenean; kontzertuak 21:00etan hasiko dira, eta doan izango da



Unai Arregi, Xabier Erdoiza eta Bingen Baños.

rurok gura genuena, funtsean, elkarregaz jotzea zen, talde berri batean.

X. E.: Sarri pentsatzen dugu Sorginolako garai hartan ez-tanda moduko bat egon zela, besteak beste hainbat musika talde sortu zelako, eta gaur egun horixe falta zaio Durangori. Guk udal lokaletan entseatzen dugu, baldintza batzuekin, baina ez da erraza entseatzeko lokala topatzea.

"DURANGON HUTSUNE EDO GABEZIA BAT DAGO ENTSEATZEKO EDO ZUZENEAN ARITZEKO"

Hutsune bat dago entseatzeko, eta baita zuzenean jotzeko ere. Inguruko herrietan jotzen dugunean inbidia puntu hori sentitzen dugu.

Otsailean entseatzen hasi eta hiru abestiko lana kaleratu duzue orain-tsu. Bizkor.

X. E.: Asko entseatzen gabiltzako lako da. Hasieran, 7-8 abestiko

lan luze bat kaleratzea zen gure asmoa. Shinovako Erlantz Prietogaz grabatzea erabaki genuen, baina agenda estua du eta udazkenerako geratu ginen. Gainera, kontzertu batzuk irten zaizkigu udazkenerako, eta horrek ere moteldu egin du abesti berriak borobiltzeko prozesua.

B. B.: Talde hasiberri batentzat lan luze bat osorik grabatzeak nahikoa inbertsio dakar, eta, beraz, abesti bakarria grabatzea erabaki genuen, ikusteko ea zelan moldatzen ginen. Bigarren bat grabatzea Erlantzek berak proposatu zigun, eta hori ikusita hirugarren bat grabatzera animatu ginen. Ekoizle lanak ere egin zituen, eta proposamenak ere egin zizkigun. Oso pozik gaude emaitzagaz eta prozesuagaz.

Estilo aldetik, eragin desberdinak igartzen dira. Erabaki duzue zer egin gura duzuen?

X. E.: Entsegu lokalera ideia solteak daramatzagu, eta gero hiruron artean garatzen ditugu. Gainera, gutariko bakoitzak ikutu desberdin bat ematen diola uste dut, musika desberdina entzun dugulako. Horregaitik dira hiru abestiak ere desberdinak.

B. B.: Badu punka, badu rocka eta badu metala ere. Abiadura du; gure musika oldarkorra dela esango nuke.

Gustura zaudete orain arte emandako kontzertuekin?

B. B.: Geroago eta gusturago, egia esateko. Lehenengo kontzertu bietan, luzaroan zuzenean jo barik egon eta gero, nahiko urduri egon ginen, baina ondo.

X. E.: Azkenekoz lagun batzuen tabernan jo genuen, eszenatoki alturik barik, eta jendea gertu edukitzeak eta disfrutatzen dabilela ikusteak asko egiten du.


XLI IURRETAKO HIRI PROBA
EUSKADIKO TXAPELKETA



10K

INSKRIPZIOAK
INFORMAZIOA

kirolprobak.com



ABENDUAK

22
10.30



Hitzordu bikoitza zirkuazaleentzat

ZIRKUA Domekan, hilak 22, Rauxa konpainiak 'La crisis de la imaginación' lana antzetzuko du, zirku garaikidea, dantza eta txotxongilo surrealistak uztartzen dituen lana; abenduaren 27tik 29ra bitartean, Maluta jaialdia egongo da Durangon

A. M. ELORRIO / DURANGO

Zirkuaren, dantzaren eta objektuen manipulazioaren bitartez, Rauxa konpainiako kideek umeen ameskeria eta abenturazaletasuna helarazi gura dizkiete helduei. Xabi Sanchezek eta Analia Serenellik osatzen dute konpainia, eta eurak dira protagonistak. Elorrioko Arriola aretoan egingo dute ikuskizuna, domekan, 17:00etan. Sanchezek eta Serenellik 2018an ipini zuten martxan Rauxa konpainia katalana, bizitzaz duten ikuspegi tragikomiko eta poetikoa azaltzeko asmoz. Urteotan bost lan sortu dituzte eta emanaldi ugari egin dute Europan zehar.



'La crisis de la imaginación'. RAUXA CIA.

Malutaren zazpigarrena

Azken urteetako Gabonetan lez, Durangoko San Agustin kultur-gunea zirku karpa bihurtuko da beste urte batez; izan ere, Maluta Eguberri Zirkua egingo da, zazpigarren urtez; aurtengoa abenduaren 27tik 29ra bitartean egingo dute. "Ezinezko trebetasunen,

birtuosismoaren eta poesiaren erakustaldi laburrak izango dira. Eszenatokian, sarerik barik, lehoirik barik, baina talentuz gainezka", esan dute Ganso&Cia konpainiakoek. Aurten, Gaia Panero (Italia), Gonzalo Albiñana (Gaztela-man-

txa), Non sin tri (Madril-Katalunia), Miguel Gigosos (Gaztela eta Leon) eta Zirkozaurre (Euskal Herria) artistek parte hartuko dute. Oraindino sarrera gutxi batzuk geratzen direla nabarmendu dute antolatzailerak.



Gazteen VIII. Arte Lehiaketako irabazleak.

Ane Elguezabal, Xabat Agirre eta Unai Blanco sarituak

MARGOGINTZA Bere 8. edizioan, Durangaldeko Gazteen Arte Lehiaketak inoizko parte hartzerik handiena izan du

A. M. DURANGO

Durangaldeko Gazteen VIII. Arte Lehiaketako sari banaketa ekitaldia egin dute. Guztira, 45 lan aurkeztu dituzte aurtengo edizioan. Ane Elguezabalek jaso du lehenengo saria, *La explosión del silencio* lanagaitik; Xabat Agirrek eta Unai Blancok jaso dituzte bigarren eta hirugarren sariak, hurrenez hurren, *Zergaitik?* eta *1974ko uda* lanengaitik; Ane Astobizak sari berezia jaso du *Orkidea* lanagaitik. Durangaldeko Artisten Elkarteak zortzigarrenez antolatu du lehiaketa, eta lanen kalitatea, sormena eta aniztasu-

na nabarmendu dituzte. "Aurtengoak parte hartze historikoa izan du. Guztira, 45 parte hartzaile egon dira, 12tik 18 urtera bitartekoak, eta horien artean %78 emakumezkoak izan dira", azpimarratu zuten sari banaketa ekitaldian. Lau sari nagusiez gainera, beste hamar aipamen berezi banatu zituzten, lanen originaltasuna eta kalitatea saritzeko; erakusketara joan zirenen artean, Dendak Baik 50 euroko bonu bat zozkatu zuten. "Lehiaketa gazteak artera hurbiltzeko plataforma garrantzitsua bihurtu da", nabarmendu zuten.



GAI LIBREAN

IUNE RUIZ TAGLE ARTE HISTORIALARIA

Eguberriko errezeta

Gezurra badirudi ere, gabonak maite ditut. Agian kanpoan hotz denean *bolitaz* beteriko artilezko txano baten azpian nire sudur izoztua paseatzea maite dudalako, "Zori_nak" hitza sumatu daitekeen kolorezko bonbilla urdin, berde, hori, urdina berriz, gorri, berdeen argipean. Uste dut gabonak maite ditudala gaztaina zimurtu eta iletsu bat naizelako, kanpotik edozein momentutan zizta zaitzakeen arantzas bete baina barrutik hori, gaztaina zimurra eta iletsua, sinplea eta haragitsua. Bada, bai. Gabonak maite ditut eta ez dakit zergatik. Akaso kapitalismoak atrapatu nau beste behin. Eta pozik egon beharko zinenen orain arte kapitalismo hitza ez dudalako erabili.

Serpentina eta omeprazolezko bakanal honetan gabonetako menuak dira nire *inperio erromatarra*. Saldak, mahonesa, azukre-hautsa, langostino egosiak, erretek, berakatza, krema, likoreak. Demasa. Horregatik, zuekin partekatu nahiko nuke gabonetako errezeta-libu-

ruari umiltasunez egiten diodan ekarpen txiki hau. Hona hemen eguberri hauetan galdu ezin duzun errezeta: gaztetxe gozo eta mamitsua labean. Horretarako, osagai hauek beharko ditugu.

- 150 gramoko ideia komun bat.
- Kontzientzia kolektibo oso bat.
- Ate bat (hozkailean bi badituzu ez du axola, ez du eragin handirik izango azken emaitzan).
- Rotaflexa.
- 75 gramoko zerraila berri bat.
- Papera eta boligrafoa.
- Papera eta boligrafo gehiago.
- Dozena erdi bengala.
- Pankarta plastiko kilo bat.
- Eta hiru koilarakada tinta (gorria posible bada).

Gaztetxe-orea prestatzeko osagai guztiak ontzi berean gogo handiz nahasi beharko dituzue. Orea prest, labea berotzen jarri beharko duzue jarraian, 200 gradutan gutxienez. Labea bero-bero dugunean, gure ore distiratsu eta likatsua egosiko dugu. Esango nuke ez dakigula zehatz-mehatz pastel honek hazteko zenbat denbora beharko duen, osagaiak asko aldatzen ez badira ere, gaztetxe tarta bakoitza bakarra baita.

Beraz, zuen kabuz gaztetxeak egitera animatzen zaituztet eguberri hauetan; etxean, herrian edo zuen auzoan. Errezeta hau jarrai dezakezue, edo imajinazioa askatu formula berriak sortu. Gaztetxe handiak, txikiak, biziak, deformatuak, gazi-gozoak, pikanteak. Baina kontuz. Gaztetxe pastelaren usainak udal-gobernuak erakartzen ditu, eta orduan gure tarta esperantzagarria inoiz beteko ez diren promesekin, arduragabekeriarekin, kontrol sozialarekin eta karga polizialez osatutako krema ustelarekin erabat beteko dute gure gaztetxea. Gainezka egin arte.



Egitasmoko sustatzaileak, Bilbon egindako aurkezpenean. BIZKAIKO EUSKAL JOKO ETA KIROL FEDERAKUNDEA

Umetatik sokatirarako grina pizteko proiektua

SOKATIRA Bizkaiko Euskal Joko eta Kirol Federazioak Bizkaiko ikastetxeetan sokatira sustatzeko egitasmoa hasi du. Eskualdean, Abadiño Sokatira Taldeak eta hiru ikastetxek parte hartuko dute: Abadiñoko eta Durangoko institutuek eta Kurutzia Ikastolak

Joseba Derteano DURANGALDEA Bizkaiko Euskal Joko eta Kirol Federazioak, Laboral Kutxagaz elkarlanean, *Bizkaian Sokatira Landuz* proiektuari ekingo dio 2025a hasteagaz batera. Belau-naldi berrien artean sokatira sustatzea eta gazte-gaztetatik kirol honegatzko grina piztea dira ekimenaren helburu nagusiak.

Nazioartean lehiatzen diren Bizkaiko hiru sokatira talderik inportanteenak proiektuko parte dira: Abadiño Sokatira Taldea, Laukizko Gaztedi eta Erandioko Goiherri. Talde hauetako hainbat ordezkari ikastetxerik ikastetxe ibiliko dira gazteei ikastaro espezializatuak ematen. Durangaldeari dagokionez, egi-

tasmoko lehenengo urtean hiru ikastetxek parte hartuko dute: Abadiñoko institutuak, Durangoko Fray Juan de Zumarraga institutuak eta Durangoko Kurutzia Ikastolak.

Egitasmoa joan zen astean aurkeztu zuten, Bilbon. "Munduan zehar lehiatzen diren sokatira taldeak ditugu Bizkaian,

eta oso harro egon gaitezke horretaz. Hala ere, nazioartean lehiatzean konturatu gara beste herrialde batzuetan oso maila handia dutela, eta hori baino garrantzitsuagoa, harrobia dutela. Horregaitik, proiektu honegatz gazteak sokatirara erakarri gura ditugu. Hurbildu daitezela, teknika ulertu eta ikasi dezatela, institutuan praktikatu dezatela, eta, gustuko badute, talderen batera tiratzera batu daitezela", azaldu zuen Juan Miguel Ranero Bizkaiko Euskal Joko eta Kirolen Federazioko presidentek.

Hiru urteko epealdia

Etorkizunari begiratzen dion proiektua da, datozen hiru ikasturteetarako —2024/2025, 2025/2026 eta 2026/2027— konpromisoa duena. Baina haratago doa, epe luzerako helburua tiralari berriak erakartzea baita, sokatirako Bizkaiko selekzioa sortu ahal izateko eta 2027an Belgikan jokatu den nazioarteko GENSBB txapelketan parte hartu ahal izateko. "Hasieran, neskak eta mutilak goma gaineko sokatiran prestatzen hasiko gara, eskakizun tekniko gutxiago behar delako, eta apurka-apurka, neska-mutilak gustatzen bazaie, lur gaineko sokatirara hurbildu daitezke. Gure talde bizkaitarrek euren inguruan sokatira sustatzea da premisa nagusia", zehaztu zuen Joseba Etxebarriak, Bizkaiko

Euskal Joko eta Kirolen Federazioko Kirol zuzendariak.

Proiektua garatzeko, Laboral Kutxaren finantziarioa "funtsezkoa" izan dela azpimarratu zuten. Bizkaiko sokatira taldeek —Abadiñok, Gaztedik eta Goiherri—, ikastetxeetan sokatiran aritzeko beharrezko materiala eta klaseak emango dituzten tiralariak ipiniko dituzte.

Beste toki batzuetara

Bizkaian sokatira landuz proiektu berria denboran irauteko asmoz sortu dute, eta datozen ikasturteetan ekimena Bizkaiko beste toki batzuetara zabaltzea aurreikusten dute. Esate baterako, Sustabiz Fundazioaren bitartez, 2025erako Gernika-Lumoko ikastetxeetara eramatea, herri kirolak, pilota eta arraunketa sustatzeko. Gainera, lehenengo ikasturtea amaitzean, sokatiraren festa handi bat antolatzea aurreikusten dute, proiektuan parte hartzen duten ikasleek urtean zehar lorturiko trebetasuna erakutsi, lagun artean lehiatu eta belaunaldi berrien artean sokatirarako zaletasuna sortu dezaten.

IKASTURTE AMAIERAN SOKATIRAREN FESTA HANDI BAT ANTOLATZEA AURREIKUSTEN DUTE

"Gazte bat hurreratzen bazaigu nahikoa izango da guretzat"

EDU MENDIZABAL ABADIÑO SOKATIRA TALDEKO PRESIDENTEA

Edu Mendizabal Abadiño Sokatira Taldeko presidentek ondo daki tiralari gazteak sokatirara erakartzea eta gero taldean mantentzea zein gatxa den. Bizkaiko Federazioak martxan ipinitako proiektua harrobia lantzeko lan tresna interesgarria dela uste du.

Zer iruditzen zaizu egitasmo berria?

Proiektu interesgarria da. Sokatirarako afizioa umetatik pizten ahalegintzeko aukera ilusionagarria dela uste dugu. Gero, ume eta gazte guztietatik bat bakarria hurreratzen bazaigu entrenamenduren batera, guretzat nahikoa izango da. Ikustera baino ez badatzo ere bai. Lehenengo pauso bat izango da eta ahaleginak merezi izan duen sentsazioa izango dugu.



Zuek ondo dakizue gazteak erakartzea zein gatxa den, batez ere azken harmarkadan, errelebo aldaketaren ordua heldu zenetik hona. Bai, gazteak erakartzea oso gatxa da. Abadiñon ezagutzen genituen gazteekin makina bat berriketaldi izan dugu, sokatira

probatu dezatela ahalegintzen. Honi esplikatu, hari galdetu, bestea konbentzitu... horrela ibili gara. Zortea izan dugu eta pozik gaude, baina aurretik urteetan egon gara jende berririk barik. Urteetan! Ez da gure arazoa bakarrik, talde askori gertatzen zaie jende aldetik justu egotea. Egitasmo berria proba bat da eta ea fruiturik ematen duen. Aurreratu dutenaren arabera, ikasturte amaieran sokatiraren inguruko jai handi bat egitea da asmoa, sokatira probatu gura duten gazte eta ume guztiak batzeko. Sasoi batean egin genuen horrelako zoezer. Guk 14tik 16 urtera arteko gazte talde bat genuen. Laukizen eta Goiherren gazteen beste talde bana zuten. Hiruron artean sokatira jardunaldi bat egin genuen eta

ondo irten zen, baina hortxe geratu zen kontua. Orain, sokatira erdigunea izango den jardunaldia berriro antolatzen hastea positiboa dela uste dut.

Ikastetxeetako klaseak zelakoak izango dira?

Gorputz hezkuntza klaseen barruan sokatira saioak egongo dira. Urtea hasteagaz hasiko gara, urtarrileko oportunitate bueltan. Uste dut lehenengo klasea Kurutzia Ikastolan egokitzen zaigula. Urtean zehar hainbat bider joango gara ikastetxe bakoitzera. Alde teorikoa eta praktikoa, biak emango ditugu. Ekimenak aurrera egin ahala joango gara detaileak fintzen. Erakutsi gura dugu sokatira ez dela indar kontua bakarrik; hau da, hori baino askoz ere gehiago dela eta teknikak garrantzi handia duela. Abadiño Sokatira Taldeak hiru gazte prest agertu dira klaseak emateko: Martzel Azkorbebeitia, Andrea Diaz eta Ane Abarrategi.

Iurretako Hiri Proban Euskadiko txapela jokoan

LASTERKETA Iurretako Hiri Probak 41. aldia egingo du domekan. Aurten Euskadiko txapelak banatuko dituztenez, bereziki maila handia egongo da proba guztietan. Proba nagusiaren aurretik, goizean zehar, umeen lasterketak egingo dituzte

Joseba Derteano IURRETA

Domeka honetan lehiatuko den 41. Iurretako Hiri Probak osagai guztiak ditu aspaldiko urteetako zirrargarriena izateko. Hamar kilometroko ibilbidean, Euskadiko txapelak erabakiko dira, banaka zein taldeka. Beraz, eskal klubek euren korrikalaririk onenak ekarriko dituzte. Horri garaipenaren bila irtengo diren nazioarteko atleta askoren lehia gehitu behar zaio. Beraz, Iurretako probak pandemia aurretikoan zuen oihartzuna berreskuratuko du aurten. Orduan, 2018an eta 2019an, Espainiako eta Euskadiko txapelak erabaki ziren, hurrenez hurren.

Aipatutakoa gutxi balitz lez, beste interesgune bat ere gehitu behar zaio zerrendari. 2025eko martxoan, Espainiako errepideko txapelketa Bilbon izango da. Bertan parte hartzeko, gutxieneko markak behar dira, beti ere zirkuitu homologatu batean. 2017tik Iurretak zirkui-



Bidezabaleko eta Iurretako Udaleko ordezkariak, aurkezpenean.

tu homologatua duenez, hainbat korrikalari gutxieneko marka hori lortu guran etorriko dira Iurretara.

Hori guzti hori kontuan hartuta, aurten korrikalarien "batez besteko maila oso handia" izan-

go dela azaldu zuen aurkezpenean Bidezabal klubeko presidentea den Juan Ignacio Hernandezek. "Lasterketako irabazleez haragotako, interesgune asko daude eta proba ikusgarria izateko osagai asko ditu", gaineratu zuen.

Euskadiko txapela irabazteko faboritoak bereiztea ez da erraza. Gizonetan parekotasun handia espero dute adituek. Emakumeetan Elene Loyo arabarra da faboritoetariko bat.

Umeen lasterketak

Iurretako Hiri Proba, nazioarte mailakoa nahiz herrikoa, 12:00etan hasiko da, Maspe kalean. Horren aurretik, goizean zehar, umeen lasterketak egingo dira; 10:30ean, kadeteak eta gazteak; 10:50ean, benjaminak eta benjaminarekoak; 11:00etan kimu mailakoak eta haur kategorikoak, eta 11:30ean haurrak. Azken urteetan legez, lasterketa paralinpikoa ere egingo dute 11:00etan hasiko da.

2025erako asmoa

2022tik aurrera, nazioarte mailako Iurretako Hiri Proba urte birik behin egiten da, urtero izan beharrean. Bestelako ekimen motekin txandakatzen dute. Iaz lasterketa herriko bat egin zuten. Bestalde, 2025eko otsailaren 9an haurrentzako krosa egitea aurreikusitako da. Aldundiko eta Federazioko egutegian sartzea "gatxa" izan dela esan du Hernandezek, baina urteetako ahaleginak bere fruitua eman du. Urtero hitzordu bihurtu gura dute. 2026an Iurretan nazioarteko probaren txanda izango denez, baliteke krosa Durangaldeko beste herri batean egitea.

Elordi eta Zabaleta garaipenaren bila, Durangon

Elordik eta Zabaletak Jakaren eta Imazen kontra jokatu dute datorren astelehenean

J.D. DURANGO

Datorren astelehenean, abenduak 23, 19:00etan, Durangoko Ezkurdi Jai Alai pilotalekuak Binakako Pilota Txapelketako jardunaldi bat hartuko du. Partidu nagusia, Elordik eta Zabaletak Jakaren eta Imazen kontra jokatu dute. Binakako txapelketako laugarren jardunaldiari dagokion partidua izango da. Elordi eta Zabaleta hirugarren postuan sailkatuta daude, hiru partidutik bi irabazita. Jakak eta Imazek puntu premia handiagoa dute, orain arte garaipen bat baino ez dutelako eskuratu.

Partidu nagusiaren aurretik, Serie B mailako partidua jokatu dute. Bertan, Aimar Morgaetxebarria zornotzarra eta Zubizarreta III.a Zabalaren eta Eskuzaren kontra arituko dira.

Partiduetarako sarrerek 15, 20 edo 25 euro balio dute eta entradasfronton.com webgunean eskuratu daitezke.



JOKALDIA

OIHANA AZKORBEBEITIA URIZAR MENDI LASTERKETAK

Martuteneko San Silvestre

Mendi lasterketen denboraldia luzeagoa da urtetik urtera, eta esango nuke urtearen hondar-hondarrean amaitzen dela, Gabon zaharrez, San Silvestre lasterketekin. Izan ere, badira mendian jokatzeko diren San Silvestreak. Gu, esaterako, Bergarakora joaten gara.

San Silvestreak bereziak dira, lehia alde batera utzi eta lagun giroa sortzen delako batez ere. San Silvestreetan gutxi erreparatuko diote nork irabazi duen, nor sailkatu den bigarren... Askoz ere garrantzitsuagoa da kirol apur bat egitea, aipatu dudan lagun giro horren parte izatea, lasterketaren ondoren kuadrillan edo senide artean trago bat jotzea eta berriketaldiak izatea.

Aurten San Silvestre berezi batean parte hartzeko asmoa izan dut, Martutenekoan. Mendiko korrikalari birekin joateko nintzen: Ioseba Eskuderoekin eta Goar Lopeategirekin. Hirurok gonbidapena jaso genuen. San Silvestre proba Martuteneko kartzelako presoekin egitea zen asmoa, abenduaren 28an, eta ilusio berezia egiten zidan.

Belabieta Elkartek antolatutako ekimena. Kartzelatik irten eta bertako presoekin hango inguruetan lasterketatxo bat egitekotan ginen, kronometroari eta sailkapenari begiratu ere egin barik, jakina. Proba egin aurretik hiru mendi korrikalariok hitzaldi bat ematea eta proba amaitu ostean presoekin meriendatxo bat egitea zen asmoa. Eta hauxe helburu nagusia: elkarbizitza, aisialdi osasungarria eta giza harremanak eta balioak sustatzea.

Baina Belabieta Elkartek hainbesteko mimos prestatu duen ekimenak ez du aurrera egingo.

"ATZERA BOTA DUTE. KITO. BESTE ATZERAPAUZO BAT PRESOEN GIZA ESKUBIDEEI DAGOKIENEZ. NEGARGARRIA!"

Jakingo duzue, Fermin Muguruza abeslariak kontzertu bat eman du oraintsu Martuteneko kartzela horretan. Bertan, orain dela 39 urte kartzela horretatik bertatik San Fermin egunez Joseba Sarriandiak eta Iñaki Pikabeak baffle baten barruan ezkutatuta ospa egin zutela gogoratzen duen *Sarri Sarri* abestia ere kantatu zuen Ferminek, eta horrek hautsak harrotu ditu. Covitek ekimena gogor kritikatu eta EAJri eta PSE-EERI kontuak eskatu eta gero, Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailak kartzelako kontzertua "akatsa" izan zela adierazi du. Eta, horren ondorioz, hemendik aurrera Justizia eta Giza Eskubideen Sailak gogortu egingo ditu kartzelatan ekingo kulturak egiteko baldintzak. Eta baita kirol ekintzak ere, jakina; aurtengo San Silvestre tarteko. Atzera bota dute. Kito. Beste atzerapauso bat adierazpen askatasunari eta presoekin giza eskubideei dagokienez. Negargarría!

GUARDIAKO BOTIKAK

ABENDUAK 20, BARIKUA

09:00-09:00

Unamunzaga, Muruetatorre 2C - Durango

Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

ABENDUAK 21, ZAPATUA

09:00-09:00

Campillo, Montevideo etorb. 24 - Durango

Goiria, Sabino Arana 6 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

ABENDUAK 22, DOMEKA

09:00-09:00

Sagastizabal, Askatasun etorb. 19 - Durango

Goiria, Sabino Arana 6 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

ABENDUAK 23, ASTELEHENA

09:00-09:00

Etxebarria, Montevideo etorb. 2. - Durango

Goiria, Sabino Arana 6 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

ABENDUAK 24, MARTITZENA

09:00-09:00

Balenciaga, Ezkurdi plaza 8 - Durango

Goiria, Sabino Arana 6 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

ABENDUAK 25, EGUAZTENA

09:00-09:00

Unamunzaga, Muruetatorre 2C - Durango

Goiria, Sabino Arana 6 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

ABENDUAK 26, EGUENA

09:00-09:00

Sagastizabal, Askatasun etorb. 19 - Durango

Goiria, Sabino Arana 6 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

ZORION AGURRAK

Urte askotarako!

Hamabostean behin, jasotako zorion-agurren artean **GOZATU** gozotegiko tarta bat zotz egingo dugu. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion-agurraekin batera.

Zoriondu itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

Internet

Anboto.org-en erabiltzailea sortu eta *Anboto.org/zorionagurrak* helbidean sartu zorion agurra.
Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta barikuan Anboto paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali *zorionagurrak@anboto.org* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urteguna eta gura duzun testua.

Ordezkaritzak

Etorri zaituz Anbotoren ordezkari zara edo deitu 946 232 523 telefonora.

**GOZATU GOZOTEGIA**

Ermodo, 11 DURANGO

Tel.: 946 201 663 / 661 40 14 00

gozatudurango@gmail.com

f Gozatu Gozotegia

g gozatugozotegia

**Maider, Unax eta Malen**

Maider, Unax eta Maleneri: Irribarre distiratsuenak eta besarkada goxoenak opa dizkizuegu zuen zorion egunean familia guztiaren partez! Topa, hirukote!

**DURANGO**

1992az geroztik elkartu gabe egon ostean, hilaren 14an 1942ko kintoek bazkaria egin zuten.

EGURALDIAREN IRAGARPENA

**Zapatua, 21****Domeka, 22**

Pio Pio, eramateko janaria.
Arripuko tortilla aukera ezberdinak.
Kotxeak eta maskotak garbitzeko aukera.
Baserriko ogia (Panarra, Otxandioko baserri ogia).

📍 BI-623, 48213 Izurtza 📍 BI-623, 48210 Otxandio

MALUTA X

Gabonetako Zirku Gala

Abenduak 27 - 19:00
Abenduak 28 - 19:00
Abenduak 29 - 12:30 / 19:00

Sanagustinalde, 12 • Tel.: 946 030 021 • sanagustin@durango.eus

San Agustin KULTUR GUINEA

INMOBILIARIAK



TXALETA 423m2. 5 logela eta 4 komun., Txokoa. Lorategia. Terraza. 4 kotxerentzako garajea.



IURRETA 106 m2. 4 logela eta 2 komun.



DURANGO Atikoa. 2 logela, komuna, egongela eta sukaldia. Guztiz berriztatua. Bizitzin sartzeko moduan.



DURANGO 89 M2. 2 logela, 2 komun, egongela handia eta sukaldia. Terraza. Trastelekua.



MATIENA Guztiz berriztatua. 2 logela, komuna, sukaldia eta egongela.



ETXEBIZITZAK SALGAI **DURANGO**

Askatasun etorbidea: 2 logela, 2 komun eta sukaldia-egongela. Terraza handia. Garajea eta ganbara.

Pinondo: Logela biko atiko ederra. Sukaldia eta komuna. 50 m²-ko lokalarekin batera salgai.

Barrenkalea: Logela bateko apartamentua. Sukaldia, egongela, eta komuna. Trastelekua.

Tabira: 4 logela, 2 komun, egongela eta sukaldia. Oso argitsua.

BERRIZ

Berriz: 2 logela, egongela terrazarekin, sukaldia eta komuna. Garajea eta tra stelekua.

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

ATXONDO

Atxondo: 2 logela, komuna, sukaldia eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

LURSAILAK SALGAI

Tabira: 1.445 m²-ko lursaila. Durangotik oso gertu. Laua.

Iurreta: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

Abadiño: Etxezurin kokatua. 300 m². Berriztatuko. Lursailarekin. Ganbara.

Berriz: Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berriztatuko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

Berriz: Eitua auzoan. Baserri ederra. Berriztatuko. Lursail ederra inguruan. Kokapen eta ikuspegi politak.

Atxondo: Axpe. Baserri ederra salgai. Berriztatuko. Kokapen izugarria

Mañaria: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

Mendata: Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berriztatuko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

BULEGOAK ALOKAIKIRUAN **ABADINO**

30 m²-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

GARAJE ITXIAK SALGAI

Durango, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

LOKALAK ALOKAIKIRUAN

Alde Zaharrea, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

LOKAL INDUSTRIALA SALGAI


Matiena: 460m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.



DURANGO Montebideo: 70 m2. Egongela, sukaldia jantzia, 3 logela eta komuna duxarekin. Egoera onean baina hobekuntzak behar ditu. Barrualdea. Leku onean kokatua, zonalde berdez eta zerbitzugunez inguratuta. ITE-a pasatutakoa.



DURANGO Anbroso Meabe: 117 m2. Halla, egongela, sukaldia, 4 logela eta 2 komun. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du (ipar-ekialdea) Argitsua. Leku onean kokatua, zonalde berdez eta zerbitzugunez inguratuta. EGOERA ONEAN. Ganbara eta garaje itxia.



DURANGO Askatasun Etorbidea: (1.991. urtean eraikia): 88 m2. Halla, egongela, sukaldia, despentsa, 3 logela eta 2 komun. 2 balkoi. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialde-iparraldea) Argitsua. Zonalde berdez inguratuta eta zerbitzugunez gertu. Herriko sarrera/irteeratik gertu. Egoera onean. Ganbara eta garajea. Bigarren garajea erosteko aukerarekin + 20.000 €.



IURRETA Zubiaurre: 66,43 m2. Egongela, sukaldia jantzia, 3 logela, despentsa eta komuna. Egoera onean. Pisu altua. Argitsua. Etxe erdiak kanpora ematen du (hegoaldea) Leku onean kokatua. Zonalde berdeak eta zerbitzugunez. Banaketa berri bat egiteko aukerarekin. ITE-a pasatutakoa.



MATIENA Laubideta: 80 m2. Sukaldia, 2 despentsa, egongela, 3 logela, eta komuna duxarekin. Balkoia eta terraza. Etxe osoak kanpora ematen du. (ipar-mendebaldea) Argitsua. Ikuspegiakin. Egoera onean. Zonalde lasaia, zonalde berdez eta zerbitzugunez inguratuta. Herriko sarrera-irteeratik gertu. ITE-a pasatutakoa. etxebizitzi gertu garajea erosteko aukera + 16.000 €.



BERRIAK **ATXONDO**

Jose Antonio Agirre: 3 logela, sukaldia, egongela eta komuna. 2 balkoi. Ganbara. Igogailua. **136.000 € / E.E.Z=E**

DURANGO

Askatasun Etorbidea: 3 logela, sukaldia, egongela eta komuna. 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **LEHEN 320.000 € ORAIN 298.000 € / E.E.Z=E**

Barrenkalea: 2 logela, sukaldia, egongela eta komuna. Igogailua. Berriztatuko. **LEHEN 150.000 € / ORAIN 138.000 € / E.E.Z=G**

Barrenkalea: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

Bartolome Ertzilla kalea: 3 logela, sukaldia, egongela eta komuna. Ganbara. **Lehen 170.000 € - Orain 159.000 € / E.E.Z=E**

Frantzisko Ibarra: 4 logela, egongela terrazarekin, sukaldia eta 2 komun. Balkoia. igogailua. **335.000 € / E.E.Z=E**

Juan de Olazarán: 3 logela, sukaldia balkoiarekin, egongela eta 2 komun. Igogailua. Trastelekua eta garajea. **385.000 € / E.E.Z=B**

Komentu kalea: 2 logela, sukaldia, egongela balkoiarekin eta komuna. Igogailua. Ganbara. **187.000 € / E.E.Z=E**

Montorreta kalea: 3 solairuko pabilioia. 1309 m2 inguruko azalerarekin. **728.000 € / E.E.Z=Salbuesita.**

Santikurutz Kalea: Etxebizitza bifamiliarra eraikitzeko 600 m²-ko lurzoru. **LEHEN 550.000 € / ORAIN 495.000 €**

ABADINO

Dendarikoa: Zaharberritzeko dagoen eraikina. Beheko solairua eta 3 pisuko altuera. **215.000 € .**

Eskolako: Duplexa. 3 logela, sukaldia, egongela eta 3 komun. Balkoia. Garajea eta trastelekua. **325.000 € / E.E.Z=G**

Txanporta plaza: Eraikina. Beheko solairua eta 3 pisuko altuera. **253.000 € / E.E.Z=Bidean**

BERRIZ

Murgoitio auzoa: Berreraikituko baserria lurzoruagaz. **LEHEN 280.000 € / ORAIN 250.000 €**

Eitua: Berreraikituko baserria lursailarekin. **350.000 €**

GARAIA

Momoitio auzoa: Etxebizitza eraikituko lursailak. Aukera ezberdinak.

IURRETA

Bixente Kapanaga: Zaharberritzeko etxebizitza. 3 logela, sukaldia, egongela eta komuna. **95.000 € / E.E.Z=F**

IZURITZA

Elizalde auzoa: 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukaldia, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea. **LEHEN 620.000 € ORAIN 570.000 € / E.E.Z=E**

GARAJEAK SALGAI / ALOKATZECO

Durango eta Iurretan, aukera desberdinak.

LOKALAK SALGAI / ALOKAGAI



LAU-HORTZA

KAROLINA SUAREZ
BORGES

Nezeser on bat

Olentzerori zer eskatu diodan galdetu zidan amak aurrekoan. "Nezeser on bat", nik. Eskatu bezain pronto barregarri samar sentitu nintzen. Banuen originalagoa den zerbaitezkatzerik, ordea, eskatu gabe ere eskutara iristen diren opari horietako bat aukeratu dut; galtzerdiak edo kuleroak izan zitezkeen.

Opariak eskatzeko dudan anbizio faltaz barre egitearekin baina, akordatu naiz Gabonetako gutuna ez dudala bukatu: Mari Domingi nik zer esango zain dago. Bada, lerro apur hauek aprobeztatu nahiko nituzke gure herrian gazteontzako espazio aske bat eskatu edo, behintzat, aldarrikatzeko.

Aitarekin topatu nintzen gaztetxe berriaren aldeko mobilizazioan. Konturatu nintzen 2025ean 10 urte beteko lituzkeela Sorginolak, gogoratu nituen hura okupatu aurretik afalorduetan aitarekin izaten nituen berbaldiak; emozioz eta indarrez beteta genituen asmo handiak azaltzen nizkion, nola egingo genuen, non, zergatik eta zertarako. Gogoratu eta amorratu nintzen, konturatu guztiak berdinduz segitzen duela; orduan bezain prekario gaudela, okerrago ez bada. Uler-tu genuen gaztetxea zela gizartea eraldatzeko erremintarik aproposena, instituzioek egiten ez dutena egiteko.

Orain ere lehentasuna izan behar da gazteok askatasuna edukitzea gure proiektuak gauzatzeko.

AKUILUA



"Erantzun izugarria izan dut eta oso pozik nago"

JOKIN MARTINEZ ZAMORA ARTISTA

Apalategi Metalart izenpean, Jokin Martinezek (Durango, 1973) dekorazio piezak sortzen ditu motoen osagaiak birziklatuta; hau autobus gidari lanagaz uztartzen du

Aitziber Basauri DURANGO

Motoaren katea, pistoiak, giltza finkoak, balbula-malgukiak, errodamenduak, disko-balaztak, piñoi-eragileak... baliatuta, Jokin Martinezek dekorazio lanak sortzen ditu. Sormen eta irudimenez beteriko lana da, berak dioenez (@Apalategimetallart).

Zelan erabaki zenuen motoen osagaien dekorazio piezak sortzea?

Beti gustatu izan zait moto eta autoen mundua. Hasieran, zeozer hondatzean tailerrera eramaten

nuen. Baina ibilgailu kopuru bat izan nuenean, hondatutakoa neure kabuz konpontzen hasi nintzen. Motoak desmuntatzean, desegiteko ziren pieza batzuei bigarren

"DENERIK EGIN DUT. ALABARI LAU TONA PISATZEN ZUEN PAPINA-ETXEA EGIN NION"

bitzita bat eman niezaiekeela ikusi nuen. Pistoi bat polita da, motozaleontzat behintzat. Ba, garbiketa prozesu nekezaren ondoren, pistoiak berrerabili eta erlojuak egin ditut, birabarkiekin lanparak, eta su-itzaltzaile bategaz botikina. Esekidura-malgukiekin jesarlekuak egin gura ditut.

Zerikusirik ez duten mundu bi batu dituzu: artea eta motoa.

Bai! Proiektua sortu eta gero, auto klasikoekin eta lehiaketako autoekin zerbait klub kontaktuan ipini

dira, pistoiekin garaikurrak sortzeko aukeraz galdetzeko.

Urte hasieran eman zenuen ezagutzera zeure burua.

Giltzatakoekin hasi nintzen, orain hamar bat urte. Niretzat eta ingurukoentzat sortzen nuen.

Sare sozialak erakusleihu handia izan dituzu.

Bai. Sortzeko dudan ahalmena baino askoz ere handiagoa da eskaria momentu honetan. Erantzun izugarria izan dut eta oso pozik nago. Zoriondu egiten naute nire lanagaitik, eta hainbat eskari dut.

Gutxi egingo dituzte halako piezak.

Artista ala motozalea zara gehiago?

Artista esango nuke; denerik egin dut. Alabari lau tona pisatzen zuen papina-etxea egin nion; sei hilean egin nuen. Beti gustatu izan zait sortzea, eguneroko arazoei irtenbidea topatzea. Asko gozatzen dut. Istanbulen (Turkia) antzeko lanak egiten dituen norbait dagoela ikusi dut, eta beste bat AEBetan.

Baina motozalea ere bazara.


Jakina! Betidanik. Lau moto — horietariko bat klasiko — eta Land Rover klasiko bi ditut. Ezin dezaket esan ez zaidanik gidatzea gustatzen (barrez).

Zer da gehien saltzen duzuna?

Erlojuak eta bihotzak. Pieza bat Alemaniara bidali dut. Batez ere, mediterraneo aldetik ditut eskeriak. Ermuko enpresa batek irudi korporatibo lez erabiltzeko pieza eskatu dit, azoketarako.

Zein duzu epe laburrerako erronka?

Produktu-aukera zabaltzea gura nuke, eta pieza ikustean "zer polita, nork egin du?" galdetzea. Milaka ideia ditut. Motoaren barruko piezek ez dute zerikusirik azken emaitzagaz; lan handia eskatzen du.



Bizimodu berri bat Durangon.

➤ 2. Fasea eraikitzen hasi gara.

Zure hitzordua eskatu:

946 462 041

sukia.com

sukia

Zure etxean zaude. Estás en tu casa.

"Jendea opari bila dabil; zerbait erosi guran igartzen ditugu"

ENEKO UNZALU BITXIGILEA

Egunotan Bilboko GabonArt azokan dabil bitxiak saltzen

E.H. BITXIGINTZA

Unzalu Bilboko artisautza azokan egongo da lanean urtarrilaren 5era arte.

Gabon bueltako egunak opor egun dira askorentzat, baina artisauek lanean ibiliko zarete.

Bai. Nik neuk beharrea igaroko ditut Gabonak. Gabon eguna eta Urteberri eguna kenduta, hemen izango naiz, Bilboko Areatzan. Sasoi gogorra izaten da, dena eskuz egiten dugu eta. Gabonak urteko sasoirik garran-

tzitsuena izaten dira guretzat. Uda sasoiaren ere izaten dugu mugimendua, baina Gabonetan gehiago izaten dugula esango nuke. Jendea opari bila dabil, eta zerbait erosi guran igartzen ditugu.

Aurten zer sorkuntza eraman duzu Bilboko azokara?

Eraztunak, lepokoak, hainbat bitxi bilduma... Urtero gauza berriak ekartzen ahalegintzen naiz. Enkarguak ere hartzen ditut, nahiz eta Gabon sasoi honetan ezinezkoa zaidan ho-



Eneko Unzalu, Bilboko azokan.

riekin lan egitea. Opor ostean hasi beharko nintzateke horretan.

Zelan joan da orain arte Bilboko Gabonetako azokaren edizio hau? Urtero etortzen naiz azoka honetara. Era honetako feria bakarrenetarikoa da, sektorean. Hemen eta Durangoko Euskal Dendan egoten naiz urtero. Horrez gainera, interesdunek Durangon daukadan tailerrean topatuko naute. Han daukat erakustokia, Ambrosio Meabe 6 helbidean.

"Helduak izan arren, haurtzaroko espiritua daramagu barruan"

ISABEL FERNANDEZ ALIAGA JOSTAILU SALTZAILEA

Fernandez Afede jostailu dendako arduraduna da

Ekaitz Herrera JOSTAILUAK

Isabel Fernandez donostiarrak urte asko daramatza Afede jostailu dendan lanean. Durangoko saltokian hartu du ANBOTO.

Egun gutxi geratzen dira Olentzero eta Mari Domingi etxeetara joateko. Jostailu dendetan estresa bizi duzue?

Urte osoan zehar lan egiten dugu Gabonei begira, sasoi hau izaten delako lan kargarik handienekoa. Egunak ziztuan joaten zaizkigu hemen, Gabonen zurrunbilan sartuta. Konturatzera, hara! Gabonak.

Gabonak, umeak eta jostailuak. Hara hor banaezinak diren hiru elementu.

Gurasoak oso exigenteak dira beren umeekiko, ondo begiratzen diete erosi beharrekoak. Batzuek umeek gura duten hori erosten dute, kito. Beste batzuek, aldiz, jostailu klasikoagoak oparitzeko hautua egiten dute. Zurezko jostailuak eta elektronikoak ez direnak, adibidez.

Aldatu egin dira joerak?

Joera aldaketak nabaritzen ditugu. Gaur egun jostailu sexista eta beliko gutxiago dago, eta erreferentzia kulturali eta *merchandising* delakoari loturiko gehiago. Superheroi jostailuak edo *Txakur Patruila* telesailari loturikoak, esaterako.

Aurtengo denboraldiari dagokionez, zein da jostailuen artean izarra?

Orain oso boladan daude pegatinak, boligrafoak eta errotuladoreak sortzeko jostailuak. Sormenarekin lotutako jostailuak ere boladan daude, margotzeari



Fernandez Durangoko Afede dendan.

eta marrazteari lotutakoak. Eta mahai-jolasei dagokienez ere, beste horrenbeste. Izurritik hona asko handitu da mahai-jolasak erosteko ohitura.

**Internet bidezko salmentak, pake-
teak, zelan bizi duzue aro hau?**

Kritika bat egin nahiko nuke: jendeak gero eta ohitura handiagoa du Interneten erosteko. Horrek kaleak basamortu bihurtzea dakar, komertzio txikia hiltzen baitu apurka-apurka. Guk tratatu zuzena dugu bezeroarekin, aholkua eskaintzen diogu eta honako hau ere zero kilometro kontzeptua da.

Zelan igaroko dituzue Gabonak?

Gure barnean daramagu ume hori elikatzen. Izan ere, mundu honetan lan egitean umetasun hori kutsatzen zaizu. Haurtzaroko espiritua barruan daramagu denok, eta halako data berezietan kanpora irteten da.



Konfiantzan hazi eta hezi. Nevers, familien ikastetxea

Gure ikastetxean hezkuntza pertsonalizatu eta hurbil baten aldeko apustua egiten dugu. Ikasketa prozesua familiarreko giro batean eskaintzen dugu eta ikasle bakoitzari trataera berezia ematen diogu. Honetan guztian irakasleek ikasleen garapen osoan laguntzen dute

Zergatik Neversen aldeko apustua?

- **Ikastetxe familiarra:** ikasleek, gurasoek eta irakasleek hezkuntza-komunitate sendo bat osatzen dugu eta bertan konfiantza, errespetua eta hurbiltasuna sustatzen ditugu. Haur eta gazte bakoitzak gure familia handiaren parte da eta elkarrekin lan egiten dugu ikasleak aintzat hartuak izan daitezten.
- **Espazio berrituak:** Ikaskuntza bakoitzera egokitutako espazioak lortzeko asmoz, gure instalazioak berritu egin ditugu. Hauek espazio seguru eta gune estimulatzaile bihurtu ditugu. Gune bakoitzean sormena eta ongizatea bultzatzen dituzten atsedeen-guneak daude eta ikasleen garapena sustatzeko diseinatuak daude.
- **Irakasleen hurbiltasuna:** Ikasleen beharrak eta ahalmenak gertutik ezagutzen ditugun heinean, irakasleak ez dira soilik irakasle edo tutore, bidelagun baizik. Konfiantzaren pedagogian oinarritutako konpromisoa dugu eta errespetu eta empatian oinarrituta, ikasle bakoitzak bere erritmoan hazten da irakaslearen laguntza etengabea duela jakinda.

Ikasleen garapen akademikoan indarrak jartzen ditugun arren, euren garapen pertsonala ere gure erdigunean dago. Hau lortzeko, komunikazio irekia erabiltzen dugu eta ikasle, guraso eta irakasleen arteko lankidetzaren indarrean sinesten dugu.

Etorri eta izan zaitezte gure gertuko hezkuntzaren parte! Elkarrekin, haur eta gazte bakoitzaren heziketa prozesuan lagunduko dugu, ingurune seguruan, konfiantzan eta ikasle bakoitzaren onena ateratzen.

Zuen zain egongo gara Neversen familiarekin parte izan zaitezten!

